Kontuan hartu behar dugu garai hartan *nazioa* jaiotzez parekoak edo jatorri berekoak taldekatzeko erabiltzen zela. Inperioen arragoetan, beraz, hiritarrak hasi ziren lotura bertikalen gainetik lotura horizontalak lehenesten eta, hartarako, *nazio* kontzeptua erabiltzen hasi ziren. Inperioek lana egina zuten estatua batzen eta populazioak homogeneizatzen, baina langintza hori, berariazko programa bilakatuko zen, legitimazio pribatuaren orde (subiranoarekiko lotura pertsonalaren orde) legitimazio publiko ezarri zenean (subiranoa herria zen, hortaz, estatuak nazioarena behar zuten: publikoa, bakarra eta orokorra). Programa, XIX eta XX. mendeetan burutuko zen.

Nabarmendu behar da historia honetan Koroaren azpiko estamentu eta jendeak batzeko eta hala *nazio-gorputzarte* bakarra sortzeko ahalegina hiritarrena izan zela gehienbat, burgesena, eta kasu askotan gainera gorte-hirietakoena. Hiri horietan, hots, inperioen hiriburuetan, administrazio zentral bakarra antolatzen zen neurrian edota merkataritza-sareak egituratu ahala, sortu ziren nazio-sinkroniak. Ez aurrekaririk gabe, burgesek gortearen moduak kopiatu baitzituzten eta modu horietako bat, guztiz garrantzitsua, hitz egiteko modua zen. Kasu batzuetan, beraz, jarraipen bat ikus daiteke gorte-hizkera, estatu-hizkuntza eta nazio-mintzoaren artean (Frantzia, Ingalaterra, Espainia...), besteetan, berriz, gorte-hizkera arbuiatu eta hiritarren mintzoari helduko zioten naziogileek (batez ere, naziogintza berantiarren kasuan: Italia, Alemania...). Horrela, bada, sarritan burges- eta herri-mintzoen eta gorte-hizkeren arteko tentsioa lagun zuela hedatu zen naziogintzaren sinkronia.

Horrenbestez, esan daiteke estatuen eta hizkuntzen historia batera doa zela eta historia hori gehienbat hirietan egin dela: gorte-hirietako hizkuntzak landu eta gaitu ziren estatu osoko hizkuntza ofizialak izan zitezen. Gorte zentralizaturik izan ez zutenen kasuetan, ordea, burges-hirietan egin

---

horizontalari buruz: Ernest Gellner, *Naciones y nacionalismo*, Alianza, Madrid. 1995. M. Weberen tesi zahar bat da burgesak hiritarren estamentua izatetik klase izatera iragan zirela kapitala eta estatua aliatu zirenean. Orduan hiritarren elkargo juridiko berezia (tokian tokikoa) erresuma edo jaurgio politiko osoko klase bihurtu zen. Ikus.: Max Weber, *Historia económica general*, FCE, Mexico, 1942.

behar izan zen lan hura, geroago, estatua eta merkatua batu zirenean; batzuetan industrializazioaren ateetan, besteetan industrializazioaren eskutik. Gaur egungo hizkuntza ofizial eta estandar bat ikusten dugun tokian, estatu-hizkuntza bat ikusten dugun tokian, gorte- edo merkatari-hiri bat izan zen.

Labur bilduz, nazioak sortu, hiri baten inguruan sortu ziren. Eredu kanonikoan hiri hori gorte-hiria izanda ere, burges boteretsuen hiria zen; eta iraultza egin, erregearen burua moztu eta haren tokian nazioa jarri ostean, *Hiriak* bere neurrira antolatu zituen Koroaren mendeko herri eta jende guztiak: mendeko biztanleak populu bihurtu zituen, esan nahi baita, nazio bereko populazio. Modernitatean koreografo nagusia estatua izan zen, berak ezarri zituen *naziogintzako dispositibo* nagusiak: eskola, armada, zerga zentralizatuak, eta abar... Horrela irakatsi zion jendeari nazio-kidea, hots, hiritarra izaten.

Euskarak, ondo dakigunez, ez zuen naziogintzako dispositiboetan leku handirik izan, edo bestela esan, ez zuen hiri-gizartean leku erosorik topatu. Industriarekin batera urbanizazio orokorra hasi zenean euskara baserritar-tuta zegoen. Praktikan hala ez bazen ere, diskurtsoan zalantza barik agertzen da euskara hiritik kanpo. Hiriak, estatu modernoan eta gizarte modernoan sorgune eta biziguneak, aspaldi eman zion bizkarra euskarari. Baina hori jarrera ideologiko bat izan zen; ezarian horrela izan bazen, horrela heldu bazaigu, ideologia edo paradigma batengatik izan da: paradigma horrek, esango nuke nik, ezkutatu egin du euskararen errealitate kaletarra, ezkutatu, ostendu eta ezabatu.

Aurrera jarraitu aitzin, ohar bat egin nahiko nuke. Faltsukerietan dabil hiria eta herria, askatasunak eta loturak, aniztasuna eta bakantasuna, zibilizazioa eta basakeria, modernitatea eta tradizioa... kontrajartzen dituen Hiriaren ideologia<sup>10</sup>. Faltsukeria horietan zutitzen eta legitimatzen du bere

<sup>10</sup> Ideologia horren sorgunea Europako borroka historikoak izan daitezke (ikus, Claude Lefort, «L'Europe: civilisation urbaine», *Esprit. La ville à trois vitesses : gentrification, relégation, périurbanisation*, mars/avril, 2004), baina nik ez dut irakurketa baikorregirik egin nahi, ideologia hori estatugintzan kokatuko nuke zalantza barik. Ideologia haren aldarrikapen harroa irakurri nahi duenak badu non, esaterako: Manuel Delgadoen *El espacio público como ideología* liburuan Antonio Mi-

burua estatu-hirigintzak eta horrela ere ezkututzen du nola hiriburuek, estatugintzako sorgune izan diren hiriek, antolatu, egituratu, arautu, ustiatu eta, hitz batez, kolonizatu dituzten inguruko herrialdeak eta jendeak. Hori da, hain zuzen, euskararen historian ahaztu ezin duguna. Euskal Herriko hiriek bat egin zuten ez modernizazio orokor eta abstraktu batekin, ezta hemengora egokitutako modernizazio batekin ere, baizik eta estatuen erdal modernizazioarekin. Hiri zibilizazioa (edo, bestela esan, modernizazio urbanoaren proiektu ideologikoa) nazio-estatuetan garatu da, ez haien kontra. Euskarari historia urbanoa ukatu zitzaion, egitez eta hitzez, euskara ez zelako estatu-hizkuntza.

### 3. Larre-paradigmatik guztiz irten ezinik

Euskara hirikoa baino basokoa zelakoa aspaldiko kontua izan daiteke, erro sakonekoa. Erdi Arotik aurrera euskara, Europako hizkuntza ez latindar askoren kasuan bezala, «gorte-usantza finduetatik» baztertu zuten. Hizkuntza sakratua eta eliztarra, botereduna eta legitimoa latina zen, eta harengandik abiatuta hedatu ziren ezaugarri horiek erromantzeetara. Hor hasi zen, nonbait, bazterketa zahar hau. Bereizketa eta bazterketa hauek ondo ezagunak dira European, batez ere, zuzen-zuzenean Erromaren eta Elizaren zibilizazioaren moldera guztiz egokitu ez ziren herrien kasuan<sup>11</sup>.

---

randak eginiko hitzaurrea, non modernitatea, arrazionaltasuna eta unibertsaltasuna Hiriaren baitan hirutasun santuaren gisa bildurik aurkezten dituen. (Manuel Delgado, *El espacio público como ideología*, Los libros de la Catarata, Madril, 2011, 9-17). Zein da ideologia horren (mendeko) Gaizto osagarri eta erabilgarria? Baserria, tradizioa, komunitatea, irrazionala, partikularra...

<sup>11</sup> Germaniar hizkuntzen lurraldeetan, esaterako, latina ez zena adierazteko *deutsch* hitzaren etimologia eta latindar atzizki bat erabili zuten: *theudisk* (*diutisc*), «herriarena», edo «herri-erara». Goi-hizkuntza, sakratua, jakintzazkoa, estatu-administratiokoa, latina zelarik, germaniar mintzoei *herri-erakoa* zeritzen. Euskal Herrian ez da arrotza izendapen hura: *lingua navarrorum*, *lingua rusticorum*, *lingua ruralis*, *rusticum vocabulum*, *que vulgariter dicitur Aldea*, eta abar. Eta *theudisk* egiten zutenek beste erara hitz egiten zutenei izen bakarra ezarri zieten: *wal(a)hisc* edo *walesc*, atzerritarra bainoago «erdalduna» esan nahi duena (handik ei datoz Welsh, Wallonia, Valais, Wallachia...); bazter hauetan: *vascónice*, alegia, baskoien erara, versus *romanice* edo erromatar erara, bereizi zituzten bezala.

Paradigma orokor baten aurrean gaude: Hiria, ziutatea, da zibiltatearen sorlekua, Erroma da Hiri Santua eta Betierekoa, Inperio eta Elizaren bihotza. Haren taupadek eta mintzoek kristautasun osoan zabalduz, arima kristau guztiak harmonizatu behar dira. Hiri Sakratua sekularizatu zelarik, eta bihotza estatu-hiriburura lekualdatu zelarik, paradigmak bere horretan jarraitu zuen gehienetan<sup>12</sup>. Aldaketa bakarra: estatu-mintzoak ordeztuko zuen latina. Eta esan bezala, estatu-mintzoa XVI. mendearen inguruan egituratu ziren estatuen kasuan, Inperioaren gorte-hiriaren mintzoa izango zen.

Paradigma honi herri-mintzoen *larre-* edo *basa-paradigma* deitu ahal diogu. Euskara paradigma orokor horretan herri-mintzo basatia baino ez zen izan Erdi Aroan: *rusticum vocabulum*. Errenazimentuan, edo hobe esan Europa modernoa sortu eta eratuko zuten erlijio-gerren garaian izan zuen aukera bat: gorte bateko korridoreetan ibili zen estatu modernoak sortzen eta trinkotzen hasi ziren garaian. Gorte hura guztiz periferikoa zen, ordea, eta euskara periferia horren periferia xume bat besterik ez. Harrezkero, ez du aukerarik izan, besteak beste, hemengo botere guneek eta erakundeek euren eginbeharretan ez zutelako behar berezirik izan inperio-hizkuntzetatik aldentzeko; euskara, eginkizun sinbolikoetarako behar zuten, besterik ez. Eta boteredunek komunikazio-beharrik baldin bazuten kanporakoa zen, garai hartako mundu-hizkuntza behar zuten (frantsesa edo gaztelera, bistan da) euren negozio eta harremanetarako.

Horrenbestez, euskarak ez zuen paradigma zaharretik irteteko modurik izan Modernitate osoan. Alderantziz, paradigma horretan errotzen joan zen eta paradigmaren moldera egokitzen: euskara basarteko mintzaira da, ahozko hizkuntza landu gabea (idatzi ez delako), tokikoa eta antzinakoa (baserritarren mintzoa izan delako), egia sakon eta arkaikoen gordelekua (historiarik

<sup>12</sup> Kasu batzuetan, galesaren kasuan esaterako, sekularizazioak kaltetu egin zuen bitartekariarena egiten zuen herri-mintzoa. Euskarak ere antzeko egoera bat ezagutu zuen. Norvegian, oraindik ere, estatu-mintzoa eta herri-mintzoa bereizten dituzte: aurrenekoa Danimarkaren administrazioak ezarri zuen hizkuntza da, *rismål* (erresuma-hizkuntza; gaur egun, *bokmål* edo liburu-hizkuntza), eta atzena *ladnsmål*, baserri-hizkuntza, baina izatez, baserri-hizkuntzak batzeko egitasmoa dena (gaur, norvegiera berria edo *nynorsk*). Ikus: O. Bandle et al. (arg.), *The Nordic Languages*, II, De Gruyter, Berlin, 2005, 1.918 or.

ez duelako, historiaurrekoa delako), adierazpide bereziko (linguistikoki, eta kognitiboki apartekoa delako) eta abar... Hala da eta hala behar du.

Larre-paradigmak bi aurpegi ditu: *euskalfobia* eta *euskalfilia*. Euskalfobia hiriko airearekin zabaldu eta hedatu zaigu, hango atmosfera naturala izango balitz bezala; euskalfilia, berriz, erreakziotzat jo dezakegu eta aurrekoa bezain kaletarra dela esango nuke. Baina erroak, batez ere diskurtso landuen aldetik, foru-eliteen apologietan topatu beharko genituzke. Biak ala biak, euskalfobia eta euskalfilia, beraz, eliteen diskurtsoak eta jarrerak izan dira. Hirikoak gehienak, baina landa-eliteek ondo erabili eta baliatu dituztenak.

Esan nahi du honek guztiak euskaldunek eta batez ere, euskal baserritarrek ez dutela euskarari buruzko paradigmatik sortu? Euskaraz bizi izan dira eta euskarari atxiki, eta euskararen alde borrokatu eta lan egin ere bai, baina lotura guztiz praktikoa izan dute euskararekin, euskara sano erabili duten artean. Erabilera trakestu zenean, oztopoak eta gutxiespenak topatu zituztenean, orduantxe hasiko ziren euskarari buruzko paradigma bat sortzen eta horretan erdal mundutik zetozen ideiei eusten. Erregimen Zaharrean Elizaren dotrina biblikoetatik elikatu ziren euskararen aldeko ahaleginak. Geroago, berriz, giza zientziek eta diskurtso politikoek emango zieten argudio eta pentsabide zenbait.

Larre-paradigma zahar horretan bertan jaio zen, ordea, euskaltasunaren paradigma modernoa, han sortu zen ezinbestean eta han, diskurtso eta praktika sinboliko horietan bizi izan da. Han sortua izanagatik, hasieratik zioena eta sentiarazten zuena oso bestelakoa zen. Paradigma modernoa, esan bezala, *nazio-paradigma* da: larre-hizkuntza nazio-hizkuntza bilakatu behar da, hala delako sortzez, baina ahaztu egin da *oro mintzo* izan daitekeela. Horrenbestez, euskara hiritartu edo modernizatu behar zuten. Lizardik eman zigun paradigma honen aldarri ezin hobea; gogora dezagun, *Eusko Bidaxtiaren* hitzak, *Oro mintzo* izeneko olerkian:

*Baña nik, izkuntza larrekoa, nai aumat ere noranaikoa: jakite-egoek  
igoa; soña zar, berri gogoa, azal orizta, muin betirakoa.*

Hori zen egitasmoa euskaltasunaren paradigma politikoan: euskarari dagokionez, interesik izan zutenek *nazio-hizkuntza* mailara igo nahi zuten,

beherago zioen moduan (*Amets-bideetan barna*) «*baserriz landa nai aumat ager-arazi, bazterrik-bazter*». Eta, jakina, baserriz landako eremu hura hiri da:

*Iri nagusi, giza-erlauntza: zorapenezko aruntz-onuntza, sumabearra, yagintza, sal-eros ekurugaitza, gure elkar-ındarrak itzuli bitza!*

Hiria beraz, erbestea da, exo-lurraldea euskara eta euskaltasunarentzat. *Gure elkar-ındarrak* irauliko ditu hiri-joerak: jende-dentsitate handia, abiadura eta ibilera zoroak, merkatu orojalea... Bistan da, euskalfilia honek modernizatu nahi zuen euskara, aro modernora ekarri, haren legeen neurrira, eta hori zerbait bada, euskara nazio-hizkuntza bihurtzea da; edo bestela esan, hiri-hizkuntza bilakatzea.

Aberri-paradigma, hala ere, larre-paradigmaren ondorengo fidela izan zen luzaro. Ondo elikatu zuen euskararen baserritartasuna, eta baztertu modernizatze aldera sustatu beharko zuen kale-arteko euskara. Gauzak horrela, hizkuntza nazionala, modernoa eta hiritarra egiteko egitasmoa nahikoa kamutsa izan zen, gutxienez 60 hamarkadara arte, orduan hasi ziren gauzak apur bat aldatzen. Arestiren garaietatik eta Atxagaren *Ziutateaz* argitaratu zenetik, iduri du euskarak baduela lekurik hirian eta hiriak euskararen. Ohikoak dira, horrezkero, New York, Bilbo edo Martutene euskal literaturan. Ez da ia-ia inor harritzen, ez zur eta lur geratzeko moduan bederen, Barakaldoko gazteen euskarazko hip-hopak entzutean. Iraultza kultural handi eta ez oso ondo ulertua gertatu zen Frankismoaren hondar urteetan eta ondoren etorri ziren autonomi erakundearen garapen aroan. Euskarak leku propioa zabaldu zuen hirian, hiri-irudikapenean eta hiri-azpikulturetan. Aberri-paradigmaren oldar berantiarren eskutik, euskarak jauzi egin zuen *ohituratik modara*<sup>13</sup>. Bazirudien euskara kaletarra ez ezik, hiritarra ere izan zitekeela, eta areago, kutsu *underground* modernoa zuela berez.

<sup>13</sup> Alegia, Gabriel Tarderi jarraituz, tradiziozko imitazioetik imitazio modernora. Moda da, nonbait, testuinguru modernoetan praktika baten hedapen fenomenoak, zeresanik gabe doa zer gertatuko den testuinguru hipermodernoetan, baina bistan da euskara modakoa izan dadin modako kontuekin artikulatu beharko dugula, horiek zernahitakoak izanda ere. Ikus: Gabriel Tarde, *L'opinion et la foule*, Du Sandre, Paris, 2006, jatorrizko 1901ekoa.

Asko lortu zen, lortu da. Baina aberri edo nazio-paradigmaren altzoan euskara bere burua modernizatzen eta iraultzen ari zelarik eta nazio-koreografia baten bidez euskal sinkronia berri bat berpizten ari zelarik, bestelako agertoki bat antolatu digute munduko jaugin nagusiek. Honezker, Hipermodernitateak harrapatu gaitu, eta euskara hiri moderno nazionalera ekarzea ez da aski.

#### 4. Hiriak bizitzeko logikak Hipermodernitatean

Nazio-estatuko hiriak, nazioaren fraktal gisa eraikita, sinkronizazio nazionalaren motorrak izan dira. Gaur, berriz, badugu inperio-hiriaren bertsio berri bat: mundu-hiria edo hiri globala deritzona. Han, kultura-artekotasuna eta kultura-askotasuna omen ditugu aukeran. Nazio-hirien sinkronizazioa puskatu egin da. Sinkronia bakarra zen tokian, gero eta zatikatuagoa iruditzen zaigun polikronia dugu. (Hala ere, nazio-hiriak buruan ditugulako pentsatu ohi dugu egungo hiriak polikronikoak direla, baina arestian azaldu legez, hori ez da guztiz berria, Erdi Aroko Lizarra bat esaterako aski multikulturala zen.)

Egun, beraz, hirietan nazio-kultura orokorraren orde, hiri-kultura eta azpikulturak deritzenak topatzen ditugu. Modernizazioaren eskutik etorri da aldaketa hori, ez da guztiz berria<sup>14</sup>. Baina modernizazioa globalizatu arau, hiri-bizimodu eta hiri-kultura unibertsal antzeko bat existitzen delako iritzia sortu zaigu. Dena den, hiriek bizigune egonkor bateratzailea izateari uzten badiote ere, elkarretartzeko bilgune espaziala izateari eutsi diote. Hori bai, elkartzeko horiek gero eta *hautazkoagoak* direlarik, eta gero eta *sarbide bereziagoa* dutelarik.

Aldaketak ulertze aldera, hiria bizitzeko eta sentitzeko logika zabalduenei erreparatuko nieke, sentitu ere, hiria bizigune (gisan) edo pasabide (gisan) senti dezakegu eta. Ikus ditzagun sentierok.

<sup>14</sup> Hiri-bizimodu horren hastapenetan deskripzio ezin ederragoak eman zizkigun Simmelek halako bizigune batean behar ziren izaera eta gaitasunez. Aniztasuna eta askotasuna kudeatzeko, nonbait, psikologia berezia behar da, besteekiko lokarriak hausten eta soraio jokatzeko jakin behar da. Ikus: Georg Simmel, «Las grandes urbes y la vida del espíritu», *El individuo y la libertad*, Península, Bartzelona, 1986.



Lehendabizikoa, *egote logika* da. Hari jarraikiz, hiria bizigunea dela sentitzen dugu, bizitzaren habitata dela, auzotasun nabar eta zail baten agertokia, gestionatu eta borrokatu behar den bizitokia. Hiria, kasu honetan, identifikazioa sortzen duen harreman gune publikoa da. Hirian bizi gara, hiria gara. Hiritarra izatea bizigune berezi bateko biztanlea izateaz gain, eskubide eta betebeharez ehundutako identitate soziala da. Integrazioa da, logika honetan, hiritarrei eskaintzen eta eskatzen zaiena.

Bigarrena, *igarotze logika* da. Haren arabera, hiria pasabide bat da, aukerak eskura jartzen dituen zerbitzugune bat, kontsumitu eta bisitatzeko dagoen agertoki hutsal bat. Trafikoa da hiri honen eredia, turistaren eta bezeroaren hiria da. Eta hiri hori identitate sorgunea baino, diferentzien sorgunea eta erakusleihoa da. Hiriek euren arteko lehietan kontsumorako *branding* bereizgarria behar duten moduan, hirietan bertan diferentzien (hots aukeren eta bereizketen) joko zabaltzen da. Hemen eskumen eta betebeharren arragoa ez da integrazioa, mugikortasuna baizik. Bistan da, logika hau da fluxuen hiriarena<sup>15</sup>.

Horrenbestez, hiria sentiera batetik zein bestetik eraiki, gauzatu eta bizi ahal da. Biek dituzte arazo espezifikokoak: habitatari dagokionez, jendartea zatikatzea edota zatiak ere ghetifikatzea...; eta pasaerako hiriari dagokionez: gentrifikazioa, urbanalizazioa edota desozializazioa...<sup>16</sup> Baina hemengo honetan hiri-logiken bilakaerari erreparatu nahi nioke. Oro har *polikronia deslokalizatueta* ari gara jotzen, hau da, hirietan bizi arren, ez dugu lehenengo bizimodu trinko, dentso eta tokian tokikoa, ezta nazio-erritmokoa ere. Haren ordez, arian-arian gero eta lokatuago dauden harreman eta praktikak ditugu: bilguneetatik eta eurenartetik lokatuago. Hiria zatikatu dela diogu-

<sup>15</sup> Aurrez aurre, bi ildo horietaz: Manuel Delgado, op. cit., eta François Archer, *Les Nouveaux Principes de l'urbanisme*, Éditions de l'Aube, Paris, 2004. Aurkaritza hori da ez-lekuen gaineko gogoetan agerian jartzen dena, ikus: Marc Augé, *Los «no lugares». Espacios del anonimato*, Gedisa, Barcelona, 1996. Ikuspegi baikorrago batean, ez-lekuetan korritzen duten fluxuen jario dentsoan bizi-energiak sor litezke, ikus: Karl Schlögle, *En el espacio leemos el tiempo*, Siruela, Madrid, 2007, 288 or.

<sup>16</sup> Horretan sakontzeko, ikus: Eduardo Apodaca & Mikel Villarreal, «Los retos psicosociales de la ciudad», Manuel Gonzalez Portilla et al. (arg.) *Procesos de transición, cambio e innovación en la ciudad contemporánea*. UPV/EHU, Bilbo, 2011.

nean, erantsi beharko dugu zatikatze horren ondorioz bizigune itxi eta harridunak agertu diren bezala, auzo pribatu esklusiboak ugaldtu diren bezala, bilgune eta plaza publikoak husten ari direla. Ez da soilik urbanismoaren kontua, orokorrean, nork bere harremanak hautatzeko kontrolaren desioa nagusitzen ari zaigu: atomizazioa, norberaren hautamena, harremanetarako teknologiak, sare telematikoak... Segituan doaz herrestan.

Hiriak zeharo aldatzen ari dira, baina teknologia berriak lagun, gehiago ari dira bizi-praktikak eraldatzen. Hirigune modernoak ez dira, dagoeneko, sinkronia berrien agertoki pribilegiatuak. Tamainagatik edota telekomunikazioengatik, hiriak ere lokatu eta polikronia ez-sinkronizatuen agertoki bihurtu dira. Hori dela eta esan daiteke hiriak bere buruaz *gain* egin duela: edonora zabaldu da hiri-bizimodu hipermodernoa. Kasu, gero eta jende gehiago bizi da bakarrik, elkarrekin bizi direnek gero eta denbora eta espazio gutxiago partekatzen dute, eta partekatzen dutenek ere zein bere dispositiboetan murgilduta egiten dute... Eta horrelako tenorean, konexioak, loturak, harremanak edota praktikak leku eta topagune fisikotik lokatu egin dira. Berdin da inguruan hiria edo baserria dugun, aldiriko auzoa edo basarteko herrixka, bizimodu berbera eraman ahal dugu sare telematikoetan sartzeko ahalmen ekonomiko eta kulturala izanez gero.

Hala ere, harreman gune eta uneen zatikatzeak baditu mugak, edo bestela esan, hiri hipermodernoan logika modernoak, neotradizionalak edota hipermoderno hutsak nahasten dira eta hala denez gero, bakoitzak ikasi egin behar du nola ahal duen harremanak kudeatu. Hura da, beharbada, hipermodernoen. Esan legez, hiri hipermodernoan igarotze logika nagusitzen ari da, ez soilik hara-hona ibili behar dugulako etengabe, harremanetan eta eguneroko praktketan jauzika ibili behar dugulako ere: antza denez, aldi berean egon beharra dugu bai sare telematikoetan bai leku fisikoetan (eta behar hau gero eta nabariagoa eta naturalagoa izango zaigu, erabat osagarriak dira dagoeneko), eta horrez gain, leku edo egonaldi behartuek behartutako harreman ez-hautazkoetatik hautazkoetara igarotzen saiatzen gara.

Hiri-bizimoduetan, beraz, nahasten ari dira hiria bera bizitzeko eta bizimodu horiek antolatze logika ezberdinak. Elkarren segidan topatu ahal ditugu, edo hobe esan, *igaro* ahal dugu irizpide ekonomikoen arabera altxa-

tutako hautazko urbanizazio pribatuetatik sustraiduntzat jotzen ditugun jende pilatuen auzotegietara, eta geroago, haietatik irten eta arrazoi politiko edo ideologikoak direla medio sortzen diren neokomunitateen bilguneetara jo dezakegu, edo bizi-estiloen kontura agertzen diren modako praktika esan-guratsuen pasealeku eta erakustokietara hurreratu.

Hizkuntza-praktikak ere saski berean sartu behar ditugu. Hiri-bizipenak bezala, leku jakin batean bizi beharrez sortzen den jendartekoak bainoago, hizkuntza-praktikak fluxuetakoak bilakatzen ari dira. Oraingoz, hala ere, hizkuntza praktikak egote eta igarotze logiken bizipenak mutur banatan izango lituzkeen *continuum* batean paratuko bagenitu, hara-hona genbilzke: alde batean bizi-komunitateei loturik dauden praktiketan eta bestean, berriz, fluxuei loturikoetan. Horregatik batzuetan bizigunearen erritmo kolektiboetan babestu ahal gara eta besteetan, berriz, norberak hautatu dituen erritmoetan aritu. Bizi-komunitateetan hizkuntzaren funtzioak (eta bera bizitzeko erak) norberaren adierazpena eta komunikatze (gatazkatsu eta) komunitarioa izan ohi dira, fluxuetan, ordea, trukea eta jokaera instrumentala nagusitzen dira. Zeinetan da errazago asmoz aldaketarik eragitea? Eta hirien aldaketak ikusita, zeinetan du euskalgintzak eragiteko aukera handiagorik?

## 5. Eginkizun dugun paradigma hipermoderno eta lurraldegitza

Euskarak paradigma berri bat behar du gaurko eta biharko erritmoetara egokitzeko. Eta bizirik denez, ez dut dudarik, bizitzetik bertatik azaleratuko da. Gogora dezadan, hala ere, paradigmatik, (ideiak, irudikapenak, sentimenduak, eginbideak, asmoak, motibazioak...) eragiten dituzten aldetik, bizitresna eta bizi-eragileak direla. Beraz, lanean hasi behar da asmo esplizituz. Orain, izan ditugun paradigma horiek, hots, larre-paradigma sasi-tradizionala eta aberri-paradigma tradiziozale eta modernoak, paradigma berri batekin nahastu behar ditugu. Ez ditugu ez ahaztu ezta alboratu behar, paradigma berri batean biziberritu baizik. Zein nolakoa izango den paradigma hori ez dut nik esango, egiteke dagoen neurrian ezin esan larregizko ausardia

barik, baina inguru hipermodernotarako bada, bistan da, hiri-bizimoduaren fluxuetan taxutu behar dela.

Alde horretatik, dilema (sasi-dilema ote?) baten aurrean gaudela esango nuke: badirudi hizkuntzaren bizi-kemena indartze aldera hiztun-erkidego trinkoak behar ditugula, baina aldi berean, hiztun kopurua eta batez ere praktika kopurua zabaldu eta hedatu beharrean gaude. Gaurko baldintzetan trinkotzeari ekiten diogunean neokomunitate horretako bat sortzen dugu maiz. Hiriburuetan (Donostia salbuespena izan daiteke) agerikoa da fenomeno hori: euskaldun aktiboek halako talde, elkarte, sare, komunitate edo topaguneak sortzen dituzte, eta praktika berezietan batzen dira, usu aisialdirako eta berriaz atondutako ekitaldietan, eta aldi berean, eguneroko jardueretan erdal fluxuetan sakabanaturik bizi behar dute. Badute, han-hemenka, euskal babestoki zenbait, baina hiriburuetan euskarak ezin dio egote logika huts bati eutsi. Kontrara, nire ustez gero eta argiago dugu fluxuetan behar dugula euskara, *eguneroko* fluxuetan ahal delarik: hirian barrena egin beharreko praktika arruntetan, hain zuzen, eta ez babestoki mugatu eta ohiz kanpoko jarduera berezietan.

Agidanez, euskalgintzak badu bertute soziogenikorik, alegia, harreman eta elkartasun loturak sortzeko gaitasunik, zeren eta euskaldunak batzeko ahalgintetan dabilenak nahita edo nahi gabean harremanak sortu, landu eta ugaltu egiten baititu. Alde horretatik ere, badirudi euskalgintzak Hipermodernitatearen jaugin nagusi batzuen kontra diharduela: atomizazioari elkarrekin kontrajartzen dizkio, ondare komunak balio gabetzeari mintzo eta kultura komunak balioeste, harreman fluxu telematikoari lurreko harremanak....

Hor dugu berriro ere dilema antzo aurkezten zaigun bidegurutzeari: esan bezala, hiriburuetan erruz aldatzen ari da bizimodua, gero eta gehiago biziko gara sare telematiko ez-kokatuetan eta espazio multimedia birtualetan; horiek izango dira, hain zuzen, hirietan gertatzen ari den desinkronizazioari aurre egiteko tresna, haietan berregingo ditugu bizibeharrez josi behar ditugun lagunarteak eta harremanak. Hori bai, hautazko sinkronia iragankorrak izango dira horiek.

Horrez gain, bizimodu hipermoderno hori hiritik kanpora zabaltzen ari da eta horrela hiri-aldiriak ere aldaratzen ari dira (zer ez da lurraldean hiriburu

baten aldiria?). Herrigune dentsorik gordetzen dutenetan ere bizimodu lokatua eta desinkronizatua topatuko dugu. Hiriburuek oraindik ere eusten diote zerbitzu eta elkartzeko gune izateari, erdigune funtzionalak dira bizitzaren arlo gehienetan. Oraindik dira gune erreferentzialak, bai ekonomian, bai kulturean, bai soziabilitatean, gune sendo eta oparoak. Baina, erraz suma dezakegu hiria ez dela lehen bezain beharrezkoa, besteak beste, bere buruaz gain egin duelako.

Azken horretatik tira eginez, eta Euskal Herriaren tamaina dela eta (batez ere, EAEko barne-egiturari begira), *euskal hiria* kontzeptua zabaldu zaigu. Hiri bat izango omen da Euskal Herria; eta ideia gauza dadin lanean ari dira hainbat eta hainbat<sup>17</sup>. Ideiak berak badu kutsu politiko neoliberal argia, edo hala nahiago izatera postmodernoa, eta badu halaber Hiriaren Ideologiaren bertsio zaharberritu baten antza. Badirudi Euskal Herria *hiri* bihurtuz, azkenik, modernoak izango garela eta bizkar gainetik kenduko dugula base-ri-hatsa. Alabaina, hau dena ez da nahitaez bete behar den etorkizun bat. Ez dago Historiaren lege baten mendean. Gaurko politikek asko egin ahal dute biharko lurraldea, biziguneak eta bizi-erritmo kolektiboak batera edo bestera hartaratzeko.

Hiriaren Ideologiaren molde hipermodernoetan herriak ez du leku handirik, politikoki kargatuegia delako, eta kulturalki erabat atzeratua. Hiria sistema konplexu gisa irudikatzen zaigu, adituek kontrolatu eta gestionatu behar dutena, eta gehienon atxikimendua lortzeko gobernantza postpolitikoaren eredu gardenak eta parte-hartze bide irekiak eskaintzen dituena. Lurralde-antolamenduari begira, halako pentsamoldeak bat egiten du alderdi askotan posthiria eta hiri barreiatua deritzon harekin. Eta ondorio argi bat antzeman dakioko: lurraldeak kontzentrazioarako tokiko biziguneak galduko ditu ezarian. Udal askok egin nahi dio aurre galera horri, biziguneak berariaz antolatzen eta paratzen ibiltzen dira eta jendeak berez betetzen eta animatzen ez dituen hartarako amuak prestatzen dituzte: ikuskizunak, azokak, jaialdiak... Politika absurdoa: kale-arte dentso eta nabarrak hustu,

<sup>17</sup> Unai Fernandez de Betoñok dioen moduan, ez da metafora bat, hirigintzarako eta lurralde-antolakuntzarako megaproiektu bat baizik. U. Fernandez de Betoño, «Hirigintza eta euskara: marko orokorra», *BAT. Lurralde-antolaketa eta hizkuntza*, 2014 (1), 11-24.

jendea bezero eta ikus-entzule bilakarazi eta ondoren lehengo bizi-dinamikak pizteko esku-hartze bereziak antolatu.

Horregatik ere, euskalgintza ezin da izan bizimodu edo errealitate sozial baten gainean mintzoa, oihal bat izango balitz moduan, zabaltzen duen eskua, ezin da izan errealitatea hizkuntzaren kolore hutsez antzaldatzen duen brotxa. Euskalgintzak ez du lan egiten euskararen corpusean, baizik eta euskararen gorputz sozialean. Eta lan egiten du gorputz hori desartikula ez dadin.

Horiek horrela, dilema deitu diot Hipermodernitatearen bidegurutzeari bitara jo behar delako beti: batetik, euskalgintza eta lurraldegintzaren intersezioan komunitatea bera landu behar baita, baina, aldi berean hiri-bizimoduaren barreiatze fluxu mota guztietan ere ekin behar delako. Aurrenaren adibidea, *arnasguneak* ditugu. *Hizkuntz Parkeraren tentazioa* deituko nioke: abaro seguru bat, hiriaren uholdeak hareazko euskal guneak desegin ez ditzan. Bigarrenaren joera, sareetan jo eta ke ari diren euskal ekintzaileen lana dugu. Honi deritzot interesgarriagoa, *arnasguneak* bestela ulertzeko bide ematen didalako.

*Arnasguneen* (psiko)geografiak bat egiten du larre-paradigmaren ildoarekin: euskarak atzera egiten du erdal hiri-oldarraren aurrean, baserrialdean beroki bila, horrela *lurgune euskaldunaren* zerrenda irudikatzen da, itsasertzetik hurbil eta paraleloan korritzen duen zerrenda bat. Baina nik esango nuke ondorioetan biziki hipermodernoa dela. Ez soilik kultur parke tematiko baten antzera babesten duelako lurgune hori, baizik eta ondo zonifikatzen duelako jardun-eremu hura ere: hirigune barreiatuaren amarauna osatzen duten gainerako zonalde monofuntzionaletan beste bat<sup>18</sup>.

Baina nekez iraungo dute hizkuntza-babesleku horiek hango jendeek ez badute bizitza osoa bertatik bertara egiten. Eta gainera ondorio kal-

<sup>18</sup> Honetaz, adigarri diren bi testu hauek gomendatuko nituzke: D. MacCannell, *Empty Meeting Grounds*, Routledge, 1992, eta J. Comaroff & J. L. Comaroff, *Ethnicity, Inc.*, University of Chicago Press, 2009. Bestalde, askotan begitantzen zait eremu libreen gerrilla-estrategia dugula buruan, alegia, gotorlekuetatik igorriko dela euskalduntze orokorra. Hartan ere, euskararen galeraren urratsak oso modu linealean ulertzen ohi ditugunez, maiz euskalduntzea ere garapen lineal eta zentrifugo baten bidez lortuko dela irudikatzen dugu. Uste dut esperientzia nahikoa dugula jakiteko euskalduntzea polizentrikoa, nahasia, ez-lineala edota aurrera eta atzerakoa dela.

tegarriak izan litzake aipatu psikogeografia horrek, handik kanpo bizi direnak euskara *besteguneko* kontua dela irudikatzen hasiko balira. Ez dut, hala ere, babesgune eta arnagunearen ideia guztiz baztertzen, baina *gunea* toki edo zonalde batzuekin identifikatzeari uko egitekotan. Arnasguneak bestela ulertu beharko genituzkeela uste dut, *gunearen* tokian *fluxua* edo *elkarrekintza-jarioa* edo antzeko zerbait jarri beharko genukeela. Milaka mikro-arnasaldiz bilbatutako amarauna begitantzen zait erakargarriagoa. Era berean, utzi beharko genioke jendea eta haren hizkuntza-gaitasunak itxitura geografiko-administratibo estankoetan sailkatzeari eta ekin euskal praktikak, jarduerak, aukerak eta beharrak zenbatzeari.

Hizkuntza-koreografiak, areago euskal koreografiak, ez dira besterik gabealdi eta toki berean egotearen ondorioz artikulatuko, berariazko lana beharko dute. Euskaldun komunitatea (sare, amaraun edo nahikara deitu) gauzatzeko eta zentzuz janzteko ariketa koreografikoak ugaltu eta indartu beharko dira. Eta ezaugarri berriak izan beharko dituzte: maiz, komunikatzeko teknologiak lagun, aldi eta toki ezberdinetan daudenak uztartu beharko dituzte, lokala eta globala artikulatu beharko dituzten moduan, hartara koreografia irekiak izan beharko, eta hizkuntza aldetik sarri hainbat hizkuntzaren nahas-mahasak izango dira (etengabeko translazio eta itzulpen ariketetan arituko dira hiztunak).

Panorama orokorra, globalizazioak dakarrenari hemendik egindako erresistentziak eta asistentziak gehituta ere, polikronia zabal batena izango da, han atonduko dira euskal koreografiak, aski desinkronizatuak, zeren euskararen erabilera nekez izango da nazio-hirien elebakartasunarena. Aurrean duguna aniztasunaren kudeaketa da. Ondo dakigunez ere, aniztasuna hierarkizatua izaten da usu, halakoetan hizkuntzen arteko desoreka sozialak berdinduko badira, erruz behar dira erabaki eta esku-hartze politikoak. Hiri-bizimoduan, *sinkronia anitzeko espazio* zabal hartan, euskarak aldi berean izan beharko luke koreografia sinkronizatuen doinua eta sare desinkronizatu zein elkartze iragankorren osagai egoskorra. Horrela esanda dilema dirudi, ez da ordea: praktika komunak josiz egitura sozialak sortu behar baitira eta hartatik praktika indibidualizatuak kolonizatu behar baitira.

## Bibliografia

- AUGÉ, M., 1996. *Los «no lugares». Espacios del anonimato*. Barcelona: Gedisa.
- APODAKA, E. eta VILLARREAL, M., 2011. «Los retos psicosociales de la ciudad», Manuel Gonzalez Portilla et al. (arg.) *Procesos de transición, cambio e innovación en la ciudad contemporánea*. Bilbo: UPV/EHU.
- ARCHER, F. 2004. *Les Nouveaux Principes de l'urbanisme*. Paris: Éditions de l'Aube.
- BANDLE, O. et al. (arg.), 2005. *The Nordic Languages, II*. Berlin: De Gruyter.
- BAT soziolinguistika aldizkaria, 2014. «Lurralde-antolaketa eta hizkuntza» izeneko dosierra, BAT 90 (1).
- CASTELLS, M., 1977. *The Urban Question*. London: E. Arnold.
- COMAROFF, J. eta COMAROFF, J.L., 2009. *Ethnicity, Inc.*, University of Chicago Press.
- DAVIS, M., 2006. *Planet of Slums*. New York: Verso.
- DELGADO, M., 2011. *El espacio público como ideología*, 9-17. or., Madrid: Los libros de la Catarata.
- ELIAS, N., 1987. *El proceso de la civilización. Investigaciones sociogenéticas y psicogenéticas*. México: F.C.E.
- FERNANDEZ DE BETOÑO, U., 2014. «Hirigintza eta euskara: marko orokorra», BAT. *Lurralde-antolaketa eta hizkuntza*, 2014 (1), 11-24.
- GELLNER, E., 1995. *Naciones y nacionalismo*. Madrid: Alianza.
- HALL, E. T., 1990 (jatorrizkoa 1959). *The Silent Language*. Anchor Books.
- LEFEBVRE, H., 1980. *La revolución urbana*. Madrid: Alianza Editorial.
- LEFORT, C., 2004. «L'Europe: civilisation urbaine», *Esprit. La ville à trois vitesses : gentrification, relégation, périurbanisation*, mars/avril.
- LIPOVETSKY, G. eta SERROY, J., 2008. *La Culture-monde*. Paris: Odeile Jacon.
- MACCANNELL, D., 1992. *Empty Meeting Grounds*. Routledge.
- , 2001. *Lugares de encuentro vacíos*. Barcelona: Melusina.
- MANN, M., 1991. *Las fuentes del poder social, I*. Madrid: Alianza.



MONGINE, O., 2013. *La Ville des flux: L'envers et l'endroit de la mondialisation urbaine*. Paris: Fayard.

SASSEN, S., 1991. *The Global City: New York, London, Tokyo*. Princeton Univ. Press. 1.

SCHLÖGLE, K., 2007. *En el espacio leemos el tiempo*, 288 or., Madrid: Siruela.

SENNET, R., 2001. *Vida urbana e identidad personal*. Barcelona: Península.

SIMMEL, G., 1986. «Las grandes urbes y la vida del espíritu», *El individuo y la libertad*. Barcelona: Península.

TARDE, G., 2006 (jatorrizkoa 1901). *L'opinion et la foule*. Paris: Du Sandre.

WEBER, M., 1942. *Historia económica general*. Mexiko: FCE.

# Hizkuntza praktikak hiri mundu eta mundu hirietan: Anbibalentziaren presentzia

Prácticas lingüísticas en las grandes urbes y en las ciudades del mundo: la presencia de la ambivalencia

Pratiques linguistiques dans les grandes zones urbaines et dans les villes du monde : présence de l'ambivalence

Language praxis in conurbations and cities around the world: the presence of ambivalence

AIERDI, Xabier

Euskal Herriko Unibertsitatea / Universidad del País Vasco (EHU/UPV)

Noiz jaso: 2015-05-13

Noiz onartua: 2015-07-20

*Euskera*. 2014, 59, 2. 503-544. Bilbo  
ISSN 0210-1564

Hirietan erronka handia dauka euskarak, baina are garrantzitsuagoa egungo eskualde euskaldun estrategikoak mantentzean, eurak dira-eta euskararen biziraupenaren bermea. Beste batzuen artean, Donostialdea eta Donostia bera ezinbestekoak dira. Euskararen etorkizuna anbibalentziaz josia dago, eremu, lurralde edo gizarte-egoera bakoitzean erabakiak hartu beharko direlako, gero eta erabaki espezializatu eta zatikatuagoak. Hazkunde handia ezagutu du euskarak hiriburuetan, bereziki tasa oso txikietatik abiatzen zirenetan. Tasa hori altuagoa izan denean, hazkundera moteldu egiten da eta sabaia dagoenaren irudikapena sortzen da. Nolanahi ere, hirian euskararen alde eta kontra dauden gizarte sektoreak nabarmenago nabaritzen dira, baina orain arteko erronka historikoak handiak izan badira, handiak izaten jarraituko dute. Hutsune eta ezintasun guztiekin azken 35 urteotan oro har asmatu egin da eta horrela jarraitu beharko du izaten.

**Hitz-gakoak:** hiria, modernotasuna, gizarte-taldeak, kapital kulturala, anbibalentzia.

El euskera tiene un gran reto en las ciudades, pero más importante puede resultar el consolidar las zonas euskaldunes estratégicas, porque son estas la garantía de la supervivencia de dicha lengua. Entre otras, Donostialdea y Donostia son imprescindibles. El futuro del euskera está lleno de ambivalencias, debido a que habrá que tomar decisiones en zonas, territorios y contextos sociales muy diferentes. Decisiones cada vez más concretas y parciales. El euskera ha conocido un gran crecimiento en las capitales, particularmente en aquellas que partían de unos índices de conocimiento muy bajos. Donde esos índices eran más altos el crecimiento se ha ralentizado, dando la sensación de que se ha tocado techo. De todos modos, en las ciudades se reflejan más nítidamente los sectores que están a favor y en contra del euskera, pero si hasta ahora los retos históricos han sido grandes, en el futuro lo seguirán siendo. Aún teniendo en cuenta todas las carencias e incapacidades que ha habido, en los últimos 35 años en general se ha acertado y así tendrá que seguir siendo.

**Palabras clave:** ciudad, modernidad, grupos sociales, capital cultural, ambivalencia.

La langue basque est un grand défi à relever dans les villes, mais il peut être plus important de consolider les zones bascophones stratégiques car elles sont la garantie de la survie de la langue basque. La zone de Saint-Sébastien et la ville de Saint-Sébastien sont en particulier indispensables. L'avenir de la langue basque est plein d'ambivalences, car il faudra prendre des mesures dans des zones, des territoires et des contextes sociaux très différents. Des mesures de plus en plus concrètes et partiales. La langue basque a connu une croissance importante dans les capitales, en particulier dans celles qui sont parties de niveaux de connaissance très bas. Là où ces niveaux de connaissance étaient les plus élevés la croissance a ralenti, donnant la sensation qu'elle avait atteint son maximum. De toute façon, dans les villes on discerne plus nettement les secteurs qui sont favorables et défavorables à langue

basque, mais si jusqu'à ce jour les défis historiques ont été importants, dans l'avenir ils vont continuer de l'être. Malgré les carences et les difficultés du passé, ces 35 dernières années elle s'est consolidée et continuera à le faire.

**Mots-clés:** Ville, modernité, groupes sociaux, capitale culturelle, ambivalence.

Basque faces a major challenge in the towns but an even greater one in maintaining today's strategic Basque speaking areas, since these are a bulwark for its survival. Among other areas, Donostia and its surrounding district are essential. The future of Basque is riddled with ambivalence, as decisions need to be taken in each area, district or societal situation, at ever more specialized and fragmented levels. Basque has grown substantially in the major towns, particularly in those where initial levels were very low. Where the level is higher, growth slows down and gives the impression that a ceiling has been reached. In any case, social sectors for and against Basque in the city are increasingly visible. If the historical challenges have been substantial until now, they will continue to be so in the future. In spite of the failings and limitations of the past 35 years the process has on the whole been successful and must continue to be so.

**Keywords:** city, modernity, social groups, cultural capital, ambivalence.

Euskarak gizarte-mugak ditu, batez ere hiri-mugak, eta horren ondorioz badugu zer aztertua eta baita estrategiak berrikusi eta berritu beharra ere. Antzeko iritzia eragile eta aztertzaile askok du, hala adituek nola erakundeek, eta urrunago joan gabe Euskara XXI ponentzia ideia honexetan oinarritzen da.

Ez naiz soziolinguistikan jantzia, baina gizarte-prozesuen oinarritzko ezagutza batek jarreraz sosegua eta teorikoki gure oinarrien berrikuspena eskatzen dutela esaten dit. Esan ohi da ez dagoela ezer praktikoa teoriatik on bat baino, baina azken hiru hamarkada eta erdietako hizkuntza-praktika(k) eta -politika(k) ikusita, agian geldione bat eskatzen dutela nabaritu daiteke. Ez luzeegia, noski, ez dugu-eta behar den astirik. Ito ere, ez genuke egin beharko. Objektiboki, duela hiru hamarkada zegoen egoerarekiko, aurrerakuntza espontziala ezagutu du euskarak. Edonola ere, euskararentzako eredu propio bat sortu behar dela gero eta argiago dago. Ez da Katalunia gure eredu, ez euskararen, ezta beste kontu ugaritan ere. Ekar daitezke handik adibide batzuk, baina hobeto geure errealitateak hasita eta gure masa kritikoa baliatuz bide propio bat bilatzeari ekitea. Ez dago munduan gurea bezalako hizkuntza errealitate bat, estaturik gabe, ingurukoekin zerikusirik ez duen hizkuntza txiki bat bizi zibilizazio-hizkuntzen artean garatu beharko duena. Gainera, frantsesaren – dotoreziaren nazioarteko hizkuntza– eta gaztelaren –mundu hizkuntza– azpian desagertu ez izanarekin pozik egon beharko luke, eta bere transmisioa bermatu dutenek eta beronetara inkorporatu direnek harrotasunerako esku-bidea irabazia dute. Ospatzekoa, lehenengo eta behin!

Edonola ere, eginiko ibilbidearen ostean, aditu asko teoria eta praktika berri bat sortzearen aldeko posizioa heldu da. Teoria egokirik ezean fenomenoaren kausa beste nonbait bilatzen da, gehienetan borondatean: pertsonalean edo politikoan. Borondatea argudio eskasa izaten da, ez baitago inon gizarte baldintzak eta posizio aurkariak edo etsaiak suntsituko dituen borondate nahikorik<sup>1</sup>. Egoerak argitzeko eta azaltzeko gizarte prozesuetara jo

<sup>1</sup> «Borondate politikorik balego» esaten den bakoitzean gertakariak laborategi batean gertatzen direnaren irudia ematen da. Errealitate soziopolitikoan edo kulturalen borondate bati beste bat kontrajartzen zaio, eta hori ez da borondate kontua, botere kontua baino. Maila pertsonalean hitzunari zama astuna eta erantzukizun handia egotzen zaizkio, euskararen egoera bere bizkar gainean eramango balu bezala.

behar da; ez testuingururik gabeko borondatera. Gizarte-asmoak gizarte-testuinguruetan garatzen dira, eta hauetan zenbait helburu egingarri da eta beste hainbat ez<sup>2</sup>. Marxek ere jendarteak historia egiten zuela esan zuen, baina ez nahiko lituzketen aukeraturiko baldintzetan. Historiaren ikuspegi kontrafaktikoari<sup>3</sup> jarraituz sekula ezingo dugu jakin gauzak beste modu batera eginda zeintzuk izan zitezkeen fruituak. Beraz, baldintzapen soziologikoak arakatzea egokiagoa da, sozialki egin ezin dena ezin da praktikan ekoiztu eta.

Euskararen berreskurapenari ondoko konstanteak dagozkio.

1. Hasierako eta egiturazko eskasia: ez dugu izan eta ez dugu gizarte ereduak inposatuko dituen burgesia nazionalik. Euskal Herrian, egotekotan, egon izan den burgesia espainolista izan da; oro har, oligarkia industrial ezjakina.
2. Historikoki, inon egin ez den saiakera batean aritu gara. Ezagutza zenbaki oso eskasetatik abiatuta, gizarte oso bat berreskuratu nahi izan diogu euskarari, eta hori seguruenik ezinezkoa da.
3. Kultura, euskara eta instituzionalizazio politikoaren inguruko borroka ideologiko basatia eta antzua 80. hamarkadan indar politiko abertzaileen artean.
4. Abiapuntu teoriko itxaropentsu eta inozoa: ezagutzak ezinbestez erabilera dakar.
5. Eta esan den moduan, ez dugu munduan inportatu dezakegun eredurik.

Hirietara etorrira, ezaugarri hauek ditugu:

1. Dilema praktiko bat dute euskal hiriek: euskaldun ehuneko ez nahikoa alde batetik baina bestetik euskaldun kopururik handiena.
2. Hizkuntza-nahikotasun praktikaezina.

<sup>2</sup> Aurrerago aipatuko den moduan, euskaltasuna ez da posible izan gure historia eta proposamen etniko-politikoan, eta hutsune nabarmen bat da.

<sup>3</sup> «Zer gertatuko zen beste hau gertatu izan bazen» galderari erantzuten dio historia kontrafaktikoak.

3. Inon euskara beharrezko ez den gunerik egotekotan, hori hiria da.
4. Aurkari oso indartsuak daude hirietan. Aldeko batzuk, ordea, eta oro har, ahulezia estrukturalaz jota ditugu: kapital sozial eta kultural eskasekoak dira.

Hortik aurrera, hirietan zer egin? Pazientzia, belaunaldi pare bat, nahikotasuna ziurtatu, euskara praktikagarri egin eta, orokorrean, presaz eta ezinbestez, desagertzen doazen belaunaldi euskaldunen ordezkokoak bilatu/bilakatu/sortu hala hiri nola landaguneetan. Euskararen etorkizuna eta bilakaera seguruenik errealitate urbanoarekin lotuta dago, batez ere hiriburuarekin eta hauei dagozkien eskualdeekin, berauetan bizi da eta euskaldun eta biztanleria gehiena. Gainera, errealitate urbanoa eta landagunekoa bereiztea ezinezkoa da Euskal Herrian, kulturaren ikuspegitik lurralde osoa praktikan ia *continuum* urbanoa delako.

### 1. Taula. Biztanleria eta euskaldunak hiriburu eta hiriburuen eskualdeetan (%)


Dagokion herrialdeko zenbateko biztanleria (%)		EAEko euskaldunetatik zenbateko %	
Eskualdeak	Bilbo Handia	75,4	25,9
	Arabako Lautada	80,0	7,2
	Donostialdea	45,7	17,6
			<b>50,7</b>
Hiriburuak	Bilbo	30,1	10,0
	Gasteiz	74,6	6,6
	Donostia	25,5	9,1
			<b>25,7</b>

*Iturria:* Egileak egina, 2011, Eustateko Biztanleriaren eta Etxebizitzaren Zentsuan oinarrituta.

Biztanleriaz aparte ere, euskaldun kopuruak erakusten du lau euskaldunetatik bat Bilbo Handian bizi dela eta Bilbon bertan, euskaldun gutzietatik

%10. Donostialdean ia bost euskaldunetatik bat bizi da (%17,6) eta euskaldunen kopuru absolutuei dagokienean, Donostia Bilboren parean dago. Araban, azkenik, euskaldunen %7,2 bizi da eta eurretatik ia gehienak Gasteizen (%6,6). Hiriburuetak eskualdeetan euskaldunen %50,7 bizi da eta hiriburuetan %25,7.

**1. Grafikoa.** Hiriburuen eskualdeetan euskararekiko harremanaren arabera bizi den biztanleria, 2011, (%)



*Iturria:* Egileak egina, 2011, Eustateko Biztanleriaren eta Etxebizitzaren Zentsuan oinarrituta.

Kokatzeko balio diguten datu batzuk hartuta, hiriburuen eskualdeetan biztanleria osoaren bi heren bizi da (%66,7), euskaldunen erdia (%50,8), ia euskaldunen %72,7 eta erdaldunen %78,6. Nolanahi ere, hiru eskualde hauetan euskaldunen presentzia oso nabarmena da eta datuek uste den baina fenomeno urbanoa dela erakusten dute, nahiz euskararen inguruko erretorika gehienak nekazari eta landa eremura lotuta ikusi.

Dena dela, alde batetik, biztanleriak euskararekin duen harremana hartzen badugu eta, bestetik, udalerrien tamaina, udalerrien tamaina handitu ahala euskararen ezagutza txikitu egiten dela ikusiko dugu. Ezagutza kopuru handienak 20.000 biztanle arteko udalerrietan agertzen dira eta udalerririk horietan populazioaren erdiak edo gehiagok euskara daki. Hortik gora, biz-




tanleria gehiagoko udalerrietan heren batetik (%33,6) laurden batekora artekoa (%26) da ezagutza.

<sup>45</sup> Euskeran eta gaztelanian, irakurmena ebaluatu zen; ingeleseko konpetentzia neurtzeko, *Cambridge English Language Assessment* izeneko erakundeak espezifikoki prestatu zuen froga (ISEI-IVEI, 2014b).



*tematikarako kompetentzian* eta *Zientzia-kulturarako kompetentzian*). Saio horren ebaluazioan honako ondorio hauek bildu dira: 1) ingelesaren ezagutzan askoz ere hazkunde handiagoa izan da HMHko taldeetan, kontrol taldeetan baino; 2) oso korrelazio indartsua gertatu da ingeles-orduen eta ingelesezko gaitasunaren hazkundearen artean; 3) korrelazio hori indartsuagoa izan da euskararen kasuan LHn, eta txikiagoa DBHn; 4) korrelazio hori gaztelanien kasuan zalantzakoa izan da, edo ez da existitzen.

ISEI-IVEI erakundearen txostenean (ISEI-IVEI, 2014b), HMHren ebaluazioaz honelako baieztapenak ikus daitezke, besteak beste: euskaraz eta gaztelaniaz errendimendua antzekoa izan dela HMH taldeetan eta kontroltaldeetan; ingelesezko errendimendua askoz ere handiagoa izan dela HMH taldeetan; beste kompetentzietan antzeko errendimendua ageri dela bi talde-motetan; «esperimentazio prozesuak erakutsi du *Matematikarako kompetentzian*, *Zientzia-kulturarako kompetentzian* eta *Irakurmenean*, gaztelaniaz eta euskaraz ez dagoela gutxiagotzerik eta ingelesezko hizkuntza-komunikazioan, berriz, irabazia handia dela»; bestalde, «badirudi ingelesean eta euskaraz, badagoela hizkuntza horiek dituzten presentzia-orduen gutxieneko atalase bat emaitzetan igoera lortu nahi bada, eta ez, ordea, gaztelanian» (ISEI-IVEI, 2014b: 69 or.).

Orain artean EAEn bertan eginiko ebaluazioen emaitzak ikusi ditugu, baina beste ikuspuntu batetik begiratuta ere (nazioarteko ebaluazio saioen behatokitik), gaztelaniazko hizkuntza-kompetentziak iduri du ez duela kalte nabarmenik jasaten ikaslea ikastetxe elebidunetan eskolatzegatik. PISA izeneko txostenak, Ekonomia Lankidetzeta eta Garapenerako Antolakundeak (ELGA)<sup>46</sup> egina, 2009an erakusten ditu 65 estatutako datuak, eta baita lagin bereziak ere eskualde zenbaitetan eta autonomia erkidego batzuetan. Haietan, irakurmenaren kompetentziaz konputu orotarakoan Espainiak 481eko puntuazioa lortu zuen eta EAek, berriz, 494koa. Kopuru hori ELGako herrialdeen batez bestekoaren parean da ia-ia (ELGak 493 puntu), baina Espainiako batez bestekotik franko goitiago da, estatu espai-

<sup>46</sup> Ekonomia Lankidetzeta eta Garapenerako Antolakundea (gazt. OCDE: *Organización de Cooperación y Desarrollo Económicos*; ing. OECD: *Organization for Economic Cooperation and Development*).

niarrean puntuazioa 481ekoa izan baitzen. Beheko **15 taulan** ikus daitezke datuak konparatuak. Aipatzekoa da, orobat, EAeko laginaren %84,4k gaztelaniaz egin zituela idatzizko ulermenaren frogak (ISEI-IVEI, 2010).

Azken PISA txostenak, berriz, 2012ko ekitaldian, 498 puntuko emaitza eman du irakurmenari dagokionez EAEn. Gaitasun horretan ELGAren batez besteko emaitza 496 puntukoa izan da, eta Espainiako batez bestekoa, berriz, 488koa. Beraz, aipatzekoa da EAeko hezkuntza elebidunaren bidez lortu diren emaitzak beste toki batzuetako sistema elebakarrenak baino hobeak direla (ISEI-IVEI, 2014c; MECD, 2014).

**15. taula.** Irakurmen konpetentziako emaitza konparatuak PISA txostenean (2009 eta 2012).

PISAren emaitzak: irakurmena	ELGAko herrialdeen batez bestekoa	EBko herrialdeen batez bestekoa	Espainiako batez bestekoa	EAeko batez bestekoa	NFK-ko batez bestekoa
2009 urtea	493	?	481	494	497
2012 urtea	496	489	488	498	509

*Iturria:* ISEI-IVEI, 2014c.

### 3. Euskara unibertsitate-sisteman

Euskal Herriko alde desberdinetako hezkuntza sistemek aitzinamendu nabariak egin dituzte hezkuntza elebidunaren eskaintzan. Unibertsitatean ere nabari da hizkuntza-politika berriek nolako emaitzak izan dituzten.

Zazpi unibertsitate badira hiru euskal erkidego politiko-administratibo berezietan: Universidad del País Vasco-Euskal Herriko Unibertsitatea (UPV-EHU), Mondragon Unibertsitatea (MU), Universidad Pública de Navarra-Nafarroako Unibertsitate Publikoa (UPNA-NUP), Université de Pau et des Pays de l'Adour (UPPA), Universidad Nacional de Educación a

Distancia (UNED), Universidad de Navarra eta Universidad de Deusto (azken hauek biak elkarte erlijioso banarenak). UPV-EHUko datu batzuk emanen ditugu hemen, erakunde horrek duen garrantzi kualitatibo eta kuantitatiboagatik unibertsitateko ikasketak euskaraz garatzeko orduan; eta bestetik, UPNA-NUPen eta UPPAren zertzelada batzuk ere aipatuko ditugu, haiek ere unibertsitate publikoak baitira, baina beste hizkuntza politika batzuk aplikatzen diren lurraldeetan.

**UPV-EHUko datuak.** Arduraldi osoko irakasleei dagokienez, azken urteetako bilakaera eta etengabeko igoera ikus daiteke **16 taulan**: mota horretako irakasleen artean ia erdiak elebidunak dira dagoeneko.

**16 taula.** UPV-EHUko arduraldi osoko irakasle eta ikertzaileak, arlo zientifikoaren eta hizkuntzaren arabera (2006-2013).

Arlo zientifikoa	Guzira 2006/2013	Elebidunak 2006/2013	Elebidunak (%) 2006/2013
Zientzia Esperimentalak	462 / 506	145 / 212	31,39 / 41,89
Ikasketa Teknikoak	795 / 865	225 / 385	28,30 / 44,50
Osasun Zientziak	221 / 295	52 / 113	23,53 / 38,30
Gizarte eta Lege Zientziak	1037 / 1118	461 / 632	44,46 / 56,52
Giza Zientziak	430 / 444	157 / 201	36,51 / 45,27
<b>Guzira</b>	<b>2945 / 3228</b>	<b>1040 / 1542</b>	<b>35,31 / 47,76</b>

*Iturria:* UPV-EHUko Euskara Errektoreordetza, 2013.

Ikasgaien eskaintza bildu da 17 eta 18 tauletan. Lehenengoan (**17 taulan**) agertzen da eskaintzen diren irakasgai desberdin guzien kreditu kopurua: 22.324 kredituetatik euskaraz %80tik goiti eskaintzen da (gaztelaniaz %89'3, batzuk beste hizkuntza batzuetan ematen baitira). Beste taulan (**18 zenbakiduna**) kredituak agertzen dira baina ikasgai motaren arabera: adarreko oinarrizkoak, beste adarretako oinarrizkoak, nahitaezkoak eta hautazkoak. Iruzkin gisa erran daiteke adarreko oinarrizkoen %96 eskaintzen dela euskaraz, eta beste muturrean, hautazkoen artean %56.

**17 taula.** UPV-EHUko ikasgaien kredituak eta zer hizkuntzatan ematen diren.

<b>Gaztelania</b>	19.928'5	%89'27
<b>Euskara</b>	18.061	%80,90
<b>Bestelakoak</b>	1.601	%7,17
<b>Ikasketa planetan kredituak guzira</b>	22.324	

*Iturria:* UPV-EHUko Euskara Errektoreordetza, 2013.

**18 taula.** UPV-EHUko kredituak ikasgai motaren arabera.

	Adar. oinarritz.		Best. adarret. oinarritz.		Nahitaezkoak		Hautazkoak		Orotara
	Kop. abs.	%	Kop. abs.	%	Kop. abs.	%	Kop. abs.	%	
Gaztelaniaz	4586	97,68	619,5	97,18	10145,5	95,95	4578	71,32	19929
Euskaraz	4518	96,23	607,5	95,29	9312,5	88,07	3623	56,45	18061
Beste hizkuntzak	540	11,5	96	15,06	803	7,59	162	2,52	1601

*Iturria:* UPV-EHUko Euskara Errektoreordetza, 2013.

Unibertsitatara sartzeko hautaprobak euskaraz edo gaztelaniaz egin daitezke. UPV-EHUUn 8.000 ikaslek baino gehiagok egin zuten azterketa hori 2010etik 2013ra arteko urte bakoitzean, eta denetan ere ikasleriaren %60 baino gehixeagok hautatu zuen euskaraz egitea. Gainera, joera goranzkoa izan da: 2011n ikasleen %61ek egin zuen azterketa euskaraz, 2012an %62k eta 2013an %63k<sup>47</sup>.

<sup>47</sup> In: [http://www.ehu.es/documents/1940628/2056218/USP\\_Txostena\\_2013.pdf](http://www.ehu.es/documents/1940628/2056218/USP_Txostena_2013.pdf) (kontsulta, 2014-07-12an).

**UPNA-NUPe**ko datuak. UPNA-NUPe eskaintzen duen euskarazko ikasgai kopurua ikus daiteke haren web orrian<sup>48</sup>. 2013/2014 ikasturtean, Haur Hezkuntza eta Lehen Hezkuntzako graduak osorik eskaini dira euskaraz, eta beste 16 gradutan ere bada aukera euskarazko ikasgai batzuk hartzeko, denetara 1.359 kredituko eskaintza osatuz, gradu mailan, sei fakultate edo eskolatan. Horretaz gainera, Bigarren Hezkuntzako Irakaskuntza masterrean 17 kreditu eskaini dira euskaraz.

2007ko martxoan onartu zen UPNA-NUPen *Euskararen Plan Estrategikoa 2007-2009*. Dokumentu horretan adierazten da 2006an ikasleen %21,3k euskaraz egin zuela unibertsitatean sartzeko hautaproba. Beste alde batetik, 2006/2007 ikasturtean 1.484 ikaslek erraten zuten euskaraz ongi zekitela (unibertsitateko ikasle guzien %21,7k), eta kopuru horrek goiti egin zuen %23,8 arte (420 ikasle), urte horretan sartu berriak ziren ikasleen artean (UPNA-NUP, 2007).

**UPPA**ko berri. Iparraldeaz denaz bezainbatean, UPPA<sup>49</sup>, hiru urteko lizentzia eskaintzen da Euskal Ikasketetan, Bordele 3ko *Michel de Montaigne* unibertsitatearekin lankidetzan<sup>50</sup>, eta bada bidea izen bereko masterra egiteko eta doktoregoa ere bai.

#### 4. Ereduak norantz?

Gaur egun oraindik indarrean diren ereduak une eta baldintza jakin batzuetan asmatu ziren eta inplementatu. Jendartean aplikatzen zen hizkuntza-politikak ez zuen aintzat hartzen estatuko hizkuntza besterik (gaztelania edo frantsesa). Hezkuntza sistema, errateko, elebakarra zen. Beste alde batetik, diktaduraren garaian Espainian ez zen informazio demokratiko fidagarririk ea nolako sentiberatasuna izanen zuen jendarteak euskararen gara-

<sup>48</sup> [http://www.unavarra.es/digitalAssets/183/183514\\_GRADUAK-2013-2014.pdf](http://www.unavarra.es/digitalAssets/183/183514_GRADUAK-2013-2014.pdf) (kontsulta, 2014-07-14an)

<sup>49</sup> UPPA: Université de Pau et des Pays de l'Adour.

<sup>50</sup> [http://ufr-pluribab.univ-pau.fr/live/digitalAssets/124/124274\\_GuideEtudes\\_LicenceEtudesBasques\\_2013-2014.pdf](http://ufr-pluribab.univ-pau.fr/live/digitalAssets/124/124274_GuideEtudes_LicenceEtudesBasques_2013-2014.pdf) (kontsulta, 2014-07-16an)

penari begira. Gainera, Euskal Herriaren konfigurazio soziolinguistiko heterogeneoak iradokitzen zuen trataera desberdinak egin beharko ziratekeela, inguruak erakusten zituen ezaugarrien arabera: Euskal Herriko alde batzuetan euskarak bizkortasun handia zuen, baina beste batzuetan haren presentzia hagitx murriztua zen, edo arrunt falta zen. Bestalde, jendartean ez zen eredu argirik balio zezakeenik hezkuntza sistema antolatzeke eta haietan hizkuntzen presentzia bideratzeko.

Hogeita hamar urte geroago bada eskarmentu franko sistema elebidun bat nola ezarri hezkuntzaren eremuan. Beste alde batetik, bilakaera gertatu da eta gaur egun jendarteak baditu ezaugarri batzuk diferenteak, aldaketa dakartenak orobat ikasgeletan ageri den hizkuntz panoraman, eta funtsean eztabaida behar dutenak, errealitate berriarentzako irtenbide egokiak aurkitzeko.

Dena bat harturik, erran daiteke XX. mendearen azken laurdenean erai-  
kiriko eredu-sistemak erantzuten ziola egoera bati non eskolaratzeko teno-  
rean funtsean bi hizkuntza ageri ziren (euskara eta gaztelania edo frantsesa),  
eta nahitaezko eskolatzearen azken helburu gisa jartzen zen bi hizkuntza  
ofizialak menperatzea<sup>51</sup>. Atzerriko hizkuntza bat geletan ikastea ere aurrei-  
kusten zen, baina ez zen seriozki planteatzen ikasleek zer maila lortu behar  
zuten, eta ez zen, halaber, jendartearen eskari nabarmenik ildo horretan.

Hezkuntza sistemak gaur egun ezaugarri desberdin batzuk ditu hizkuntzei  
dagokienez, eta ideia desberdinak eskolan hizkuntzak nola tratatu behar  
diren. Alde batetik, ikasgeletan hizkuntza gehiago ageri da: bi hizkuntza  
ofizialak ditugu alde batetik, proportzio desberdinetan agertzen direnak  
Euskal Herriaren eskualde desberdinetan, beren aldaera estandarrean edo/  
eta (euskararen kasuan behinik behin) dialektoetan; bestetik, beste hizkun-  
tza batzuk agertzen dira geletan immigrazioaren ondorioz, eta, gainera, etor-  
kinak oso testuinguru kultural eta linguistiko desberdinetatik datoz, bai  
beren artean eta baita lehenago Euskal Herrian ziren beste hizkuntzen al-  
dean. Errealitate berri horren aurrean hezkuntza sistemak erantzun bat ar-

<sup>51</sup> Beti ere abstrakzio ariketa bat eginez, eta Euskal Herri guzira batera harturik, zeren egoerak nahiko desberdinak baitira lurralde bakoitzean, ikusi dugun bezala.

tikulatu behar du eta hartarako ez da lehenagotik eredurik zuzenean aplika daitekeenik egoera berrian.

Bestalde, mundu globalizatu honetan, nazioarteko harremanen ugari-tzeak eta Informazio eta Komunikazio Teknologien zabalkunde gaitzak (ba-tez ere Internetek) ekartzen dute ondorio gisa jendartea gero eta ohartuago eta kontzientziatuago dagoela ahal bezain komunikazio-gaitasun ona lortu behar dela nazioartean erabiltzeko egokia den hizkuntza batean. Horrek errazten eta laguntzen du (batik bat) ingelesaren sarrera ikastetxeetan, hori baita nazioarteko *lingua franca* indartsuena; orain artean dagoeneko eskola-curriculumetan ageri zen/ziren atzerriko hizkuntzari/hizkuntzei ezartzen zi-tzaizkion/(-en) helburuak baino zehatzaagoak eta premia handiagokoak ezar-tzen zaizkio gaur egun atzerriko hizkuntzari (edo hizkuntzei).

Euskal Herriko hezkuntza-sistemari ezartzen zaio, beraz, zeregina lanki-detzan aritzeko, zertarako-eta erantzun bat artikulatzeko gaur egun jendar-teak erakusten duen egoera linguistiko berriarentzat. Eta egoera berriaren ezaugarriak funtsean bi ideiatan bildu eta sintetiza daitezke: alde batetik, ikasgeletan jatorri-hizkuntza anitz direla, eta bestetik, eskolatzeko prozesuaren amaieran helburu dela komunikatzeko gaitasuna lortzea hiru (edo lau) hiz-kuntzatan: ofizialak diren bietan (euskara eta gaztelania –edo frantsesa–), eta mundu mailan nazioarteko komunikaziorako balioko duen beste hiz-kuntza batean (edo bitan). Erran liteke ereduaren sistemak balio izan duela sistema elebakar batetik (gaztelaniaz edo frantsesez ari zena funtsean) siste-ma elebidun batera igarotzeko (euskara-espainola edo euskara-frantsesa, bi hizkuntzak baliatuz ohiko eskola-jardunean). Gaur egun planteatzen da igarobidea sistema elebidun batetik sistema eleaniztun batera, hasierako egoera gisa hizkuntza anitz izanaren dituen, eta helburu mailan, berriz, lortu nahiko duena komunikazio-kompetentzia garatzea hiru edo lau hizkuntza-tan, nahitaezko eskolatzearen garaian.

Jendarteak eskatzen duen aldaketa hau gertatzen da, bestalde, gaur egun-go sistema elebidunaren emaitzak jasotzen ari garen denbora berean. Ere-duen sistema honen ebaluaziorako ikerketek adierazten dute A eredu-a oraingo formulazioan garbiro ezindua dagoela legeak ezartzen duen konpe-tentzia euskaraz erdiesteko, eta beraz iduri du eredu horren ezaugarriak al-

datu egin beharko direla baldin eta haren legezko helburuak bete nahi badira. B eta D ereduak emaitza hobekak lortzen dituzte nahiz eta eredu horietako ikasleek oraindik ez duten beretu, estatistikoki, euskarazko gaitasun bat gaztelaniazkoaren parekoa, eta horrek bidea ematen du pentsatzeko sistema hobetu daitekeela. Bestalde, Hezkuntza Marko Hirueledunaren ebaluazioak, goian ikusi bezala, bidea ematen du esperientzia horretan sakontzeko, hark dakartzan aldaketa metodologikoekin.

Gaur egungo ebaluazio saioetatik jasotzen diren datuek informazioa ematen digute modu dinamikoan sistemaren eraginkortasunaz edo egokitasunaz, eta bestalde, erran bezala, ez da bistatik galdu behar nolako aldaketa ari den gertatzen globalki jendartean, eta horrek nola handitzen dion konplexutasuna sistemari bere osoan. Gaur egun azpimarratzen da nolako heterogeneotasuna duten (gaur egun eta etorkizunean) hezkuntza sistema osatzen duten ikastetxeetako erabiltzaileek eta profesionalek, eta horren aurrean adierazten da komeni dela erantzunak ematea testuinguruari ongi doitu. Horretara joateko bidean, alde batetik, hezkuntzako profesionalei ekimena eskatzen zaie eta, bestetik, ikastetxeen autonomia handiagoaren alde jokatzeko da. Ildo horretan, iduri du hizkuntza-ereduak modu malguagoan eta zaluagoan hartu beharko direla, inguruak erakusten dituen ezauzgarri arreta jarrita eta hezkuntza erkidego bakoitzaren ekimenari garrantzi handiagoa emanez. Hala agertzen da EAEko 2010eko curriculum dekretuan eta 2007ko Nafarroakoan ere bai (Eusko Jaurlaritza, 2010; Nafarroako Gobernu, 2007); ideia bera azpimarratzen da EAEn eleaniztasunera bidean 2014ko ekainean aterariko ebazpenean (Eusko Jaurlaritza, 2014b).

Horrela, bada, hezkuntza-sistemak gero eta konplexutasun eta pluraltasun handiagoa aurkezten du hizkuntzen aferan. Egoera heterogeneoago batetik abiatzen da eta hiru/lau hizkuntzatan erdietsi nahi da halako maila bat komunikazio-kompetentziari dagokionez. Egoera berri honek eskatzen du alderdi metodologikoetan sakontzea, horrela optimizatzeko hizkuntzen ikas-irakaste prozesuak eskolaren eremuan. Ildo horretan, ikuspegi berriak planteatzen dira, hala nola Hizkuntza eta Edukiak Batera Ikastea<sup>52</sup> (zeinen

<sup>52</sup> Euskaraz beste izen batzuk ere erabili dira, baina gure hautuaren arabera akronimoa HEBI izanen litzateke. Ingelesez, *CLIL: Content and Language Integrated Learning*.



bertsio elebidunean baden Euskal Herrian eskarmentu ez-gutiesteko moduko(a), eta horrekin konbinatuta baita Hizkuntzen Trataera Bateratua ere (itxura baitu horren garapena bultzatu nahi dela etorkizun hurbilean)<sup>53</sup>. Alderdi metodologiko horiek, berriz, ikastetxe bakoitzaren Hizkuntza Proiektuan integratzekoak dira, eta dokumentu horretan garatu beharko da zer irizpide eta jokabide erabiliko diren hizkuntzak ikas-irakasteari eta erabiltzeari begira, eta inguruaren ezaugarriei arreta jarri, nolako trataera eman beharko zaion hizkuntza eta aldaera bakoitzari.

Testuinguru konplexu horretan, bada eztabaida adibidez zein ote den unerik egokiena hirugarren hizkuntza sartzeko edo zenbateko esposizioaren pean egon behar duen ikasleak hizkuntza bakoitzari dagokionez, alde batetik badirelako zendentean sentiberatasun desberdinak: batzuek kezka izanen dute ingelesaren sarrera neurrigabeak euskararen normalizazioari kalte egiten ahal diolako, euskararen ezagutza orokortua atzeratzen edo ezinezko egiten delakoan, eta beste batzuek, berriz, lehen baino lehen egin nahi dute aurrera ingelesa ikastea eta menperatzea, horrela batzuetan euskararen gaia bigarren maila batean utzita. Ikuspegi eta sentsibilitate desberdin horien emaitza dira zenbaitetan azalarazten diren tentsioak, konparazio batera EAEn curriculum dekretuan izan ziren aldaketak Eusko Jaurlaritzan alderdi politiko desberdinek elkarri txanda hartu ziotenean gobernu lanetan. Iritzi desberdin horien ondorioz curriculum dekretuak bertsio desberdinak izan ditu 2007an eta 2010ean, eta disputa puntu bat hain zuzen izan zen euskarari zenbateko lehentasuna eman behar z(itz) aion.

Badira, beraz, eztabaidak hainbat alderditan ea nolako tratamendua eman behar zaion hizkuntza bakoitzari eskolaren esparruan, baina ez du ematen desadostasunak hagitz handiak diren nazioarteko erabilerarako hizkuntzan komunikazio-kompetentzia erdiesteari dagokionez. Adibide gisa bi datu adierazten ditugu: alde batetik, Gobernu ekimenek proiektu eleaniztunak sustatu nahi dituztela (hala Eusko Jaurlaritzak<sup>54</sup>, nola Nafarroako

<sup>53</sup> Eleaniztasunari eta hizkuntzak ikas-irakasteko metodologiei buruzko aipamenak ageri dira, bai EAEko eta bai NFK-ko curriculum dekretuetan.

<sup>54</sup> 2010ean Lehen eta Bigarren Hezkuntzako proiektuak *Hizkuntza Marko Hirueleduna* zuen izena, eta 2014an *Eleaniztasunerantz* izendatzen da.

Gobernuak<sup>55</sup>, eta orobat Iparraldeko hezkuntza eragileek<sup>56</sup>), horrela etorkizuneko mundu globalizatuari ahal bezain ongi erantzuteko; eta bestetik, Ikastolen Konfederazioak, euskararen aldeko jarreran arrunt ezaguna den erakundeak, ororentzako laueletasuna planteatzen duela helburu gisa bere hizkuntza-proiektuan<sup>57</sup>.

Euskal Herriko jendaratean badira sentsibilitate desberdinak hizkuntza ofizialei dagokienez. Testuinguru horretan, amaierako gogoeta gisa, azpimarratu nahi dugu euskarak balio behar duela kohesio-elementu gisa, eta ez jendea gaitzesteko edo baztertzeke, eta horretarako garrantzitsua da gai horretan ahal den adinako kontsentsu soziala zaintzen saiatzea herritarren artean (Baztarrika, 2009; Euskararen Aholku Batzordea, 2009; Zalbide, 2010).

## Bibliografia

ACADÉMIE BORDEAUX, 2010, *L'enseignement du Basque dans l'Académie de Bordeaux. Année Scolaire 2010/2011*. EEP-OPLB arduradunak helarazirikoko dokumentua, 2011ko ekainean.

ALDASORO LECEA, E., 2001, «La evolución de la enseñanza en euskera en Navarra: una perspectiva pedagógica», *Revista Internacional de Estudios Vascos*, 46, 2 (2001) 593-624. In: <http://www.euskomedia.org/PDFAnlt/riev/46/4605930624.pdf> (kontsulta, 2014-07-24).

AZKARATE, M., 2012, «The Current Situation of the Basque Language: Speakers», in Salaburu, P. & Alberdi, X. (arg.), 2012, *The Challenge of a Bilingual Society in the Basque Country*. Reno-Nevada: University of Nevada-UPV/EHU, 113-135.

<sup>55</sup> Eleaniztasunari Nafarroako Gobernuak ematen dion garrantzia ikusteko: <http://www.educacion.navarra.es/eu/web/dpto/idiomas-plurilinguismo> (kontsulta, 2014-05-14an).

<sup>56</sup> Ikasi nahi bada nolako jarrera ageri den Frantziako estatuko Hezkuntza Sistematan atzerriko hizkuntzei buruz, ikus: <http://www.education.gouv.fr/cid21459/les-principes-directeurs-de-l-apprentissage-des-langues.html>;edo/eta [http://www.education.gouv.fr/cid206/les-langues-vivantes-etranteres.html#À\\_l'école](http://www.education.gouv.fr/cid206/les-langues-vivantes-etranteres.html#À_l'école)

<sup>57</sup> Ikus hemen: Euskal Herriko Ikastolen Konfederazioa, 2009.

BAZTARRIKA, P., 2009, *Babeli Gorazarre. Bizikidetzarako hizkuntza politiko zilegi eta eraginkorra*. Irun: Alberdania.

CONSEJO ESCOLAR DE NAVARRA, 2010, *Informe del sistema educativo en Navarra. Curso 2009-2010*. Pamplona: Gobierno de Navarra.

———, 2011, *Informe del sistema educativo en Navarra. Curso 2010-2011*. Pamplona: Gobierno de Navarra.

———, 2012, *Informe del sistema educativo en Navarra. Curso 2011-2012*. Pamplona: Gobierno de Navarra.

———, 2013, *Informe del sistema educativo en Navarra. Curso 2012-2013*. Pamplona: Gobierno de Navarra.

COUNCIL OF EUROPA, 1992, «European Charter for Regional or Minority Languages, Strasbourg, 5.XI.1992». In: <http://conventions.coe.int/treaty/en/Treaties/Html/148.htm> (kontsulta, 2014-07-21ean).

———, 2001, *Common European Framework of Reference for Languages: Learning, Teaching, Assessment*. Strasbourg: Council of Europe.

———, 2014, «European Charter for Regional or Minority Languages. Treaty open for signature by the member States and for accession by non-member States». In: <http://conventions.coe.int/Treaty/Commun/ChercheSig.asp?NT=148&CM=8&DF=&CL=ENG> (kontsulta, 2014-07-23).

DOLZ, J. & IDIAZABAL, I., 2013, *Enseñar (lenguas) en contextos multilingües*. Bilbao: EHUAZ.

EUSKAL HERRIKO IKASTOLAK-EUSKALTZAINDIA, 2010, *Ikastola mugimendua. Dabilen herria. Ikastola eredia 1960-2010*. Bilbao: Euskal Herriko Ikastolak-Euskaltzaindia.

EUSKAL HERRIKO IKASTOLEN KONFEDERAZIOA (EHIK), 2009, *Ikastolen Hizkuntz Proiektua*. Bilbo: Ikastolen konfederazioa.

EUSKALTZAINDIA-SIADECO, 1977, *Euskararen liburu zuria*. Bilbao: Euskaltzaindia-Caja Laboral Popular.

———, 1979, *Hizkuntz borroka Euskal Herrian*. Bilbao: Ediciones Vascas.

EUSKARAREN AHOLKU BATZORDEA, 2009, *XXI mende hasierarako hizkuntza politikaren oinarriak. Itun Berritu Baterantz*. Vitoria-Gasteiz: EJAZN.

EUSKARAREN ERAKUNDE PUBLIKOA-OFFICE PUBLIQUE DE LA LANGUE BASQUE (EEP-OPLB), 2004, «Egitura juridikoa», in: <http://www.mintzaira.fr/eu/eep/egitura-juridikoa.html> (kontsulta, 2014-06-05).

———, 2005, *Euskararen eta euskarazko irakaskuntza eskaintzaren azterketa kuantitatiboa. 2004/2005 ikasturtea*. In: [http://www.mintzaira.fr/fileadmin/documents/Enseignement/E\\_diagnostikoa\\_2004\\_2005.pdf](http://www.mintzaira.fr/fileadmin/documents/Enseignement/E_diagnostikoa_2004_2005.pdf) (kontsulta, 2013-12-18an).

———, 2013, «2013/2014 ikasturteko datuak». In <http://www.mintzaira.fr/eu/berriak/actualite-en-basque/article/bilan-de-la-rentree-2013-2014-1.html>

———, 2014, «Convention Constitutive Modifiée du Groupement d'Interêt Public Culturel «Office Public de la Langue Basque»», in: [http://www.mintzaira.fr/fileadmin/documents/EGA\\_2014/Conv\\_Constitutive\\_modifiee\\_20140320\\_signee.pdf](http://www.mintzaira.fr/fileadmin/documents/EGA_2014/Conv_Constitutive_modifiee_20140320_signee.pdf) (kontsulta, 2014-06-22).

EUSKO JAURLARITZA, 1983, «Uztailaren 11ko 138/1983 DEKRETUA, Euskal Herriko irakaskuntza ez unibertsitariar hizkuntza ofizialen erabilera araupetuz», *EHAA*, 108 zkia, 1983-VII-19, in: [http://www.euskadi.net/cgi-bin\\_k54/bopv\\_20?c&f=19830719&s=1983108](http://www.euskadi.net/cgi-bin_k54/bopv_20?c&f=19830719&s=1983108) (kontsulta, 2014-06-06an).

———, 2010, *Haur hezkuntzarako, lehen eta bigarren hezkuntzarako eta batxilergorako dekretu curricularrak Euskal Autonomia Erkidegoan*, in: [https://www.euskadi.net/r43-2459/eu/contenidos/informacion/dif10\\_curriculum\\_berria/eu\\_5495/adjuntos/curriculum\\_vigente/dc\\_educ\\_basic\\_e.pdf](https://www.euskadi.net/r43-2459/eu/contenidos/informacion/dif10_curriculum_berria/eu_5495/adjuntos/curriculum_vigente/dc_educ_basic_e.pdf) (kontsulta, 2013-12-08an).

EUSKO JAURLARITZA. HEZKUNTZA, HIZKUNTZA POLITIKA ETA KULTURA SAILA, 2013, *V inkesta soziolinguistikoa*. Vitoria-Gasteiz: EJAZN.

———, 2014a, «Hezkuntza ikasketen egitura eta antolamendua», in: [http://www.hezkuntza.ejgv.euskadi.net/r43-5473/eu/contenidos/informacion/dia2/eu\\_2023/a2\\_e.html](http://www.hezkuntza.ejgv.euskadi.net/r43-5473/eu/contenidos/informacion/dia2/eu_2023/a2_e.html) (kontsulta, 2014-07-24).

———, 2014b, «Ebazpena, 2014ko ekainaren 27koa, hizkuntza-proiektu batetik bat hirueledunak (eta eleanitzak) garatzeko», in: [http://www.hezkuntza.ejgv.euskadi.net/contenidos/informacion/dib6/eu\\_2037/adjuntos/eleanitzasunerantz/eleanitzasunerantz\\_2014\\_2015\\_e.pdf](http://www.hezkuntza.ejgv.euskadi.net/contenidos/informacion/dib6/eu_2037/adjuntos/eleanitzasunerantz/eleanitzasunerantz_2014_2015_e.pdf) (kontsulta, 2014-07-02).

EUSKO LEGEBILTZARRA, 1982, «Azaroaren 24ko 10/1982 oinarriko LEGEA, Euskeraren erabilpena arauzkotzekoa». *EHAA*, 160, 1982ko abenduaren 16koa, in: <https://www.euskadi.net/r48-vacia/es/bopv2/datos/1982/12/8201955a.pdf> (kontsulta, 2014-07-16).

EUSTAT, 2010, *Sociolinguistic survey of Euskal Herria 2006*: [http://en.eustat.es/estadisticas/tema\\_99/opt\\_0/tipo\\_3/ti\\_Sociolinguistic\\_Survey\\_of\\_Euskal\\_Herria/temas.html#axzz1Q7ZIYifO](http://en.eustat.es/estadisticas/tema_99/opt_0/tipo_3/ti_Sociolinguistic_Survey_of_Euskal_Herria/temas.html#axzz1Q7ZIYifO)

———, 2014, *Euskal Estatistika Erakundea*, in [http://eu.eustat.es/ci\\_ci/indice.html#axzz38Nik14Xx](http://eu.eustat.es/ci_ci/indice.html#axzz38Nik14Xx) (kontsulta, 2014-06-26an).

FISHMAN, Joshua A., 1976, *Bilingual Education: An International Sociological Perspective*. Rowley, MA: Newbury House.

GOBIERNO DE ESPAÑA. INSTITUTO NACIONAL DE ESTADÍSTICA, 2014, *Censo de 2011*, in <http://www.ine.es/jaxi/tabla.do?path=/t20/e244/avance/p02/10/&file=1mun31.px&type=pcaxis&L=0> (kontsulta: 2014-06-25ean).

HARGUINDÉGUY, Jean-Baptiste & ITÇAINA, X., 2012, «Towards an institutionalized language policy for the French Basque country? Actors, processes and outcomes», in *European Urban and Regional Studies* 2012 19: 434. (Interneten, in: <http://eur.sagepub.com/content/19/4/434>).

ISEI-IVEI, 2005, *Euskararen B2 maila, Derrigorrezko Irakaskuntzaren amaieran*. Vitoria-Gasteiz: EJAZN.

———, 2007, *Nivel B1 de Euskara en Educación Primaria. Informe General*, Vitoria-Gasteiz: SGPGV, in <http://www.isei-ivei.net/cast/pub/indexpub.htm>

———, 2010, *Pisa 2009. Euskadi. Ebaluazioaren txostena*. Vitoria-Gasteiz: EJAZN, in: <http://www.isei-ivei.net/eusk/argital/PISA2009/PISA2009-EUSKADI-1TXOSTENA.pdf>

———, 2011a, *Ebaluazio Diagnostikoa 2010. DBH-2 maila. Txosten exekutiboa*. Vitoria-Gasteiz: SGPGV.

———, 2011b, *Ebaluazio Diagnostikoa 2010. DBH-2 maila. Emaitzen txosten orokorra eta aldagaien analisisa*. Vitoria-Gasteiz: SGPGV. Interneten, in: [http://www.isei-ivei.net/eusk/argital/ED10\\_emaitzakETAaldagaiak/ED10\\_2DBH\\_emaitzakETAaldagaiak.pdf](http://www.isei-ivei.net/eusk/argital/ED10_emaitzakETAaldagaiak/ED10_2DBH_emaitzakETAaldagaiak.pdf)

———, 2014a, *Ebaluazio Diagnostikoa 2013. Txosten exekutiboa DBH-2*. Vitoria-Gasteiz: SGPGV. In [http://www.isei-ivei.net/eusk/argital/ED13/ED13\\_2DBHeusk.pdf](http://www.isei-ivei.net/eusk/argital/ED13/ED13_2DBHeusk.pdf)

———, 2014b, *HMH 2011-2013. HMHren esperimendazio prozesuaren ebaluazioa. Txosten exekutiboa. HMH I-II*. Vitoria-Gasteiz: SGPGV. In: <http://www.isei->

ivei.net/eusk/argital/HMH/HMH\_2014\_txosten\_exekutiboa.pdf (kontsulta, 2014-07-12).

———, 2014c, *PISA 2012 Euskadi. Eraitzen txostena eta aldagaien azterketa*. Vitoria-Gasteiz: SGPGV. In: [http://www.isei-ivei.net/eusk/argital/PISA2012/PISA2012\\_eusk.pdf](http://www.isei-ivei.net/eusk/argital/PISA2012/PISA2012_eusk.pdf)

JEFATURA DEL ESTADO ESPAÑOL, 1979, «Ley Orgánica 3/1979, de 18 de diciembre, de Estatuto de Autonomía para el País Vasco», BOE 306 de 22/12/1979: 29357-29363. In: <http://www.boe.es/boe/dias/1979/12/22/pdfs/A29357-29363.pdf> (kontsulta, 2014-06-23an).

———, 1982, «Ley Orgánica 13/1982, de 10 de agosto, de Reintegración y Amejoramiento del Régimen Foral de Navarra», BON, 3 de septiembre de 1982; corr. err., BOE 195, 26/08/1982), in: [http://www.boe.es/aeboe/consultas/bases\\_datos/act.php?id=BOE-A-1982-20824](http://www.boe.es/aeboe/consultas/bases_datos/act.php?id=BOE-A-1982-20824) (kontsulta, 2014-06-23an).

MINISTÈRE DE L'ÉDUCATION NATIONALE, DE L'ENSEIGNEMENT SUPÉRIEUR ET DE LA RECHERCHE, 2014a, «Le système éducatif», in <http://www.education.gouv.fr/pid8/le-systeme-educatif.html> (kontsulta, 2014ko uztailen).

———, 2014b, «Archives des résultats des évaluations des acquis des élèves de l'école primaire», in [http://www.education.gouv.fr/evaluation\\_des\\_acquis/acad4/boardeaux.html](http://www.education.gouv.fr/evaluation_des_acquis/acad4/boardeaux.html) (kontsulta, 2014ko uztailen).

MINISTERIO DE EDUCACIÓN, CULTURA Y DEPORTE, 2014, *PISA 2012. Informe Español. Resultados y contexto*. Madrid: Secretaría General Técnica. In: <http://www.mecd.gob.es/dctm/inee/internacional/pisa2012/pisa2012.pdf?documentId=0901e72b8195d643> (kontsulta, 2014ko uztailen).

NAFARROAKO GOBERNUA, 1986, «Ley Foral 18/1986, de 15 de diciembre del Vascuence», *Boletín Oficial de Navarra (BON)*, 154 zk., 1986ko abenduak 17.

———, 1988, «Decreto Foral 159/1988, de 19 de mayo, por el que se regula la incorporación y uso del vascuence en la enseñanza no universitaria de Navarra», *Boletín Oficial de Navarra*, 67, 1988-06-01. In: <http://www.lexnavarra.navarra.es/detalle.asp?r=28807>

———, 2007, «Decreto Foral 24/2007 de 19 de marzo de Curriculum de Enseñanza Primaria», in <http://www.educacion.navarra.es/web/dpto/profesorado/curriculos-y-normativa/infantil-y-primaria> (2013-07-19an ikusia).

———, 2014a, «Estadística de Datos Básicos», in [www.educacion.navarra.es/portal/Informacion+de+Interes/Estadisticas/Estadistica+de+Datos+Basicos](http://www.educacion.navarra.es/portal/Informacion+de+Interes/Estadisticas/Estadistica+de+Datos+Basicos) (kontsulta, 2014-07-21).

———, 2014b, «Eskolatzea», in <http://www.educacion.navarra.es/eu/web/dpto/estudios> (kontsulta, 2014-07-15)

———, 2014c, «Hizkuntza ereduak», in <http://www.educacion.navarra.es/eu/web/dpto/modelos-linguisticos>

SERRA, J. M. & VILA, I., 2009, «Bigarren hizkuntzak eta eskola», in Ruiz Bikan-di, U. (arg.), 2009, *Bigarren Hizkuntzaren Didaktika Haur eta Lehen Hezkuntzan*. Bilbo: EHUAZ, 21-47.

SIERRA, J., 2008, «Assessment of Bilingual Education in the Basque Country». In *Language Culture and Curriculum*, 21:1 (2008) 39-47.

SIGUÀN, M. & MACKAY, W.F., 1986, *Educación y bilingüismo*. Madrid: Santillana.

STUIJT, M. (Daniel Sánchez-ek eguneratua), 2008, *The Basque language in Education in France. 2nd edition*. Ljouwert/Leeuwarden: Mercator European Research Centre on Multilingualism and Language Learning.

UPNA-NUP. UNIVERSIDAD PÚBLICA DE NAVARRA-NAFARROAKO UNIBERTSITATE PUBLIKOA, 2007, «Euskararen Plan Estrategikoa 2007–2009», in <http://www.unavarra.es/euskara> (kontsulta, 2014-07-15ean).

UPV-EHU. EUSKARA ERREKTOREORDETZA, 2013, *UPV-EHUko Euskararen II. Plan Gidaria*. Bilbo: EHUAZ.

ZALBIDE, Mikel, 2010, *Euskararen legeak hogeita bost urte. Eskola alorreko bilakae-ra: Balioespen-saioa*. Bilbo: Euskaltzaindia.

**Birformulatzaile esplikatiboak (*alegia, erran nahi baita, hau da, hots*) egungo euskara estandarrean: erabat baliokide ote?**

**Reformuladores explicativos (*alegia, erran nahi baita, hau da, hots*) en el euskera estándar actual: son totalmente equivalentes?**

**Reformulateurs explicatifs (*alegia, erran nahi baita, hau da, hots*) en basque standard actuel : sont-ils totalement équivalents ?**

**Explanatory reformulators (*alegia, erran nahi baita, hau da, hots*) in present-day standard Basque: are they totally equivalent?**

ALBERDI LARIZGOITIA, Xabier

Euskal Herriko Unibertsitatea / Universidad del País Vasco (EHU/UPV)

Noiz jaso: 2015-02-23

Noiz onartua: 2015-07-20



Euskal hiztezigileen definizioak abiapuntutzat harturik, artikulua honetan aztertzen dut zerbateraino diren baliokide eta zerbateraino diren desberdin birformulatzaile esplikatibo batzuk (*alegia, erran nahi baita, hau da, hots*). Azterlan honek agerian uzten duenez, hizpide ditugun birformulatzaileen artean funtsean baliokidetasuna dago haien balio pragmatiko nagusiari dagokionez, baina ez dago erabateko baliokidetasunik haien artean beste irizpide batzuk kontuan hartzen baditugu eta, beraz, ez dira trukagarriak testuinguru guztietan.

**Gako-hitzak:** diskurtso-markatzaileak, birformulatzaile esplikatiboak, baliokidetasuna, balio pragmatikoa, *alegia, erran nahi baita, hau da, hots*.

Teniendo en cuenta las definiciones de los lexicógrafos vascos, este artículo analiza en qué medida son equivalentes y en qué medida diferentes algunos reformuladores explicativos (*alegia, erran nahi baita, hau da, hots*). Este análisis deja claro, que entre los reformuladores estudiados, si nos atenemos a su valor pragmático principal si habría equivalencia; no así si tenemos en cuenta otros criterios, y por lo tanto, no son permutables en todos los contextos.

**Palabras clave:** marcadores discursivos, reformuladores explicativos, equivalencia, valor pragmático, *alegia, erran nahi baita, hau da, hots*.

Prenant comme point de départ les définitions données par les lexicographes basques, cet article étudie dans quelle mesure les reformulateurs explicatifs sont équivalents et dans quelle mesure ils sont différents (*alegia, erran nahi baita, hau da, hots*). Cette analyse montre clairement que, parmi les reformulateurs étudiés, il y a bien une équivalence si l'on s'en tient à leur principale valeur pragmatique, mais il n'y en a pas si l'on prend en compte d'autres critères, par conséquent ils ne sont pas permutables dans tous les contextes.

**Mots-clés:** marqueurs discursifs, reformulateurs explicatifs, équivalence, valeur pragmatique, *alegia, erran nahi baita, hau da, hots*.

Taking the definitions of Basque lexicographers as a starting point, how far a number of explanatory reformulators (*alegia, erran nahi baita, hau da, hots*) are equivalent and how far different is examined. The analysis makes clear that as far as their main pragmatic value is concerned the reformulators studied are equivalent; this is not the case, however, if other criteria are applied. Hence, they are not exchangeable in all contexts.

**Keywords:** discourse markers, explanatory reformulators, equivalence, pragmatic value, *alegia, erran nahi baita, hau da, hots*.

## 0. Sarrera<sup>1</sup>

Diskurtso-markatzaileak (DM)<sup>2</sup> definitzea ez da batere eginkizun erraza; eta are zailagoa da haien artean izan daitezkeen kidetasunak eta desberdintasunak agerian uztea. Artikulu honetan, bada, euskal hiztegi-gileen definizioak oinarri harturik, aztertzen dut zenbateraino diren baliokide eta zenbateraino diren desberdin birformulatuzaile esplikati-boak (*alegia, erran nahi baita, hau da, hots*).

Teorian, birformulatuzaile baten definizioak ondo bereizi behar luke delako partikula gainerakoetatik, haren bereizgarriak agerian utzita. Inguruko hizkuntzetan ikerketa asko egin dira azken hamarkadetan diskurtso-markatzaileei (DM) buruz (Vázquez, 2011) eta ikerketa horien ondotik markatzaileen hiztegi espezializatuak ere sortu dira (Fuentes, 2009; Briz *et alii*, 2008). Euskaraz, berriz, ez dago batere garatuta ikerlerro hori, eta kontuan izanda DMak hitz bereziak direla –munduari ez, baizik eta diskurtsoari erreferentzia egitekoak– eta jarraibide pragmatikoak ematea dela haien eginkizuna –hots, solaskideari diskurtsoaren inguruko inferentzietan laguntzea–, interesgarria iruditu zitzaidan aztertzea nola egin dioten aurre euskal hiztegi-DMak definitzeko eginkizun zailari.

Esparrua mugatu beharra zegoen ezinbestean, eta birformulatuzaile esplikati-boak (*alegia, erran nahi baita, hots, hau da...*) hartu ditut aztergai. Berezi, halako hitzen definizioaren erroka –haien arteko kidetasunak eta desberdintasunak agerian uzteko erroka– nuen ikusmiran, eta horregatik hautatu ditut euskarazko hiztegi elebakarrak azterlan honetarako: Euskal Hiztegia (EH)<sup>3</sup>,

<sup>1</sup> Ikerlan hau *Gogo elebiduna/La mente Bilingüe* ikerketa-talde egonkortuaren (IT665-13) emaitzatariko bat da. Emaitza hauetara ekarri gaituen ikerketak Europar Batasunaren ikerketarako, teknologia garatu eta erakusteko Zazpigarren Esparru Programaren laguntza jaso du 613465 diru-laguntza hitzarmenaren bitartez.

<sup>2</sup> Hemendik aurrera, laburtzearen, DM laburdura erabiliko dut *diskurtso-markatzaile* deitura luzearen ordez.

<sup>3</sup> Internet (*Hautu-lanerako Euskal Hiztegia*): <http://www.euskara.euskadi.net/r59-15172x/eu/sarasola/sarasola.apl>

Hiztegi Batua<sup>4</sup> (HB) eta Euskaltzaindiaren Hiztegia (EusH). Ikuspegia osatzeko, bi hiztegi elebidun hauek ere aztertu ditut: Orotariko Euskal Hiztegia<sup>5</sup> (OEH) eta interneteko Elhuyar euskara-espainiera hiztegia.<sup>6</sup>

Teorian, DM baten definizioak ondo bereizi behar luke delako markatzailea gainerakoetatik, ondo hautaturiko deskriptore eta bereizgarriak dirrela medio (Portolés, 2007; Seco, 1978). Euskal hiztegiek, berriz, elkarren baliokidetzat jotzen dituzte hizpide ditugun lau birformulatzailerik esplikatiboak (*alegia, erran nahi baita, hau da, hots*).

Sarri askotan esan izan da nekez aurkitzen dela hizkuntza batean erabateko sinonimiarik. Eta, hain zuzen ere, ildo horretan kokatzen da gure atzerlana. Alegia, gure lanaren helburu nagusia da aztertzea zenbateraino diren baliokide euskarazko birformulatzailerik esplikatibo nagusiak (*alegia, erran nahi baita, hau da, hots*) eta agerian uztea, kidesun pragmatikoak gorabehera, ez dagoela erabateko baliokidesunetik birformulatzailerik horien artean.

Lehen atalean, birformulatzailerik esplikatiboek buruz euskal hiztegiatan ematen diren argibideak jaso ditut modu deskriptiboan. Bigarren atalean, birformulatzailerik balizko baliokidesuna jarri dut auzitan irizpide batzuen argitan: kategoria, euskalki-banaketa, mugikortasuna, joskera, beregaintasun diskurtsiboa, balio pragmatikoak eta informazio-egitura. Eta, azkenik, ondorio batzuk formulatu ditut azken atalean.

Metodologiari dagokionez, EUDIMA ikerketa-proiektuko corpus zabalaz baliatu naiz testuak eta datuak aztertzeko. Egungo euskara zaindua islatu nahi du EUDIMA corpusak<sup>7</sup> eta honela osatuta dago:

<sup>4</sup> Internet: <http://www.euskaltzaindia.net/hiztegiatua/>

<sup>5</sup> Internet: <http://www.euskaltzaindia.net/oe/>

<sup>6</sup> Internet: [http://hiztegiak.elhuyar.org/eu\\_es/](http://hiztegiak.elhuyar.org/eu_es/)

<sup>7</sup> Guztira 62,6 milioi testu-hitz ditu corpusak eta halako oreka bat lortu da testu itzulien eta jatorrizkoen artean. Testu mota batzuk biltzen ditu (akademikoak, lege-testuak, prentsa, saiakera) eta, bereziki, ahozko hizkuntzara hurbiltzen diren bi azpicorpus ditu: alde batetik, Goenkale, zeinak hein batean lagunarteko erregistroa imitatzen baitu; eta, bestetik, ETBko dokumentalen corpusa, zeinak, entzunak izateko testuen bidez, erregistro zaindua islatzen baitu.

**1. taula.** EUDIMA corpusaren osaera

ZIO corpusa <sup>8</sup>	1,0 milioi testu-hitz
EHUko eskuliburu itzuliak	5,5 milioi testu-hitz
Zuzenbidea / lege-testuak	4,1 milioi testu-hitz
Zuzenbidea / testu akademikoak	2,5 milioi testu-hitz
Pentsamenduaren Klasikoak <sup>9</sup>	10,7 milioi testu-hitz
Ereduzko Prosa Dinamikoa (EPD): liburuak <sup>10</sup>	10,2 milioi testu-hitz
Ereduzko Prosa Dinamikoa (EPD): prentsa <sup>11</sup>	10,5 milioi testu-hitz
Zientzia eta Teknologiaren Corpusa (ZT) <sup>12</sup>	6,6 milioi testu-hitz
ETBko dokumentalak	0,5 milioi testu-hitz
Goenkale corpusa <sup>13</sup>	11,0 milioi testu-hitz
<b>GUZTIRA</b>	<b>62,6 milioi testu-hitz</b>

Jatorrizkoak	35,7 milioi testu-hitz
Itzulpenak	26,9 milioi testu-hitz
<b>GUZTIRA</b>	<b>62,6 milioi testu-hitz</b>

**1. Birformulatzaile esplikatiiboak euskal hiztegietan: alegia, erran nahi baita, hau da, hots**

Atal honetan halako xehetasun batez ikusiko dugu nola jaso eta nola landu diren euskal hiztegietan diskurtso-markatzaile jakin batzuk: birformulatzaile esplikatiiboak. Eta, multzo horren barruan, bereziki, euskal hiztegie-

<sup>8</sup> <http://www.ehu.es/ehg/zio/>

<sup>9</sup> <http://ehu.es/ehg/pkc/>

<sup>10</sup> <http://ehu.es/ehg/epd/>

<sup>11</sup> <http://ehu.es/ehg/epd/>

<sup>12</sup> Zientzia eta Teknologiaren Corpusa: <http://www.ztcorpusa.net/cgi-bin/kontsulta.py>

<sup>13</sup> <http://ehu.es/ehg/goenkale/>

tan jasota dauden markatzaile nagusi hauek izango ditugu aztergai: *alegia, erran nahi baita, hau da eta hots*.

### 1.1. Alegia

Hona hemen euskal hiztegi elebkarretako definizioak.

Euskal Hiztegia (EH):

- (1) Alegia 2. (\*1745, 1872) Aurreko esaldiaren esangura berdintsua duen, edo haren esplikagarri den esaldi baten bukaeran ezartzen den hitza, «hau da»-ren baliokidea. Hemengo ipuin eta bertsoek iturri bera dute; Graziano Gesaltzako aitona, **alegia**. || Aurrekoa jasoaz, bigarren esaldiaren hasieran ere ezartzen da. «Eskopeta ori koipeka erria dago» esan zion, **alegia** behin ere ez ziola koiperik ematen. Zera adierazi dio, **alegia** ez dadila hemendik aurrera bere andregaiarekin joan.

Hiztegi Batua (HB):

- (2) **alegia** 1 'hots, hau da' 2 'ipuina'

Euskaltzaindiaren Hiztegia (EusH):

- (3) Alegia 1 lok. Zerbait azaldu ondoren, informazioa zehazteko, azalduakoa argitzeko edo osatzeko erabiltzen den hitza, *hau da*-ren baliokidea. *Hemengo ipuin eta bertsoek iturri bera dute; Graziano Gesaltzako aitona, alegia. Eskutitz sail bat zen, karta sail bat, alegia. Gauza bat da arrantza, astoarena, alegia eta bestea arrantza, itsaso-erretako arrainena. Argiaren zalea da, alegia ez duela beste zuhaitzen itzalik nahi.*
- (4) 2. lok. (Azaldu nahi denari sarrera emanez). *Zera adierazi dio, alegia, ez dadila hemendik aurrera bere andregaiarekin joan. Esan dit, alegia, hauek gaztetxoak direla. Esan nahi dut, alegia, aukera izan banu bide horretatik joko nuela.*

Erabilitako definizio-moldeari bagagozkio, azpimarratzekoa da bai EHk, bai EusHk estrategia berttua erabili dutela. Alegia, definitzeko bi modu

hauek uztarturik osatu dute definizioa: definizio funtzionala («... ezartzen/erabiltzen den hitza») eta metalinguistikoa<sup>14</sup> (baliokidetza bidezkoa: «*hau daren baliokidea*»). Hiztegi Batuak, berriz, gehienbat ortografia-hiztegia izanik, baliokidetza besterik ez du erabili (*alegia* 1: *hots, hau da*).

Hona hemen OEhk eta Elhuyarrek ematen dituzten argibideak.<sup>15</sup>

Orotariko Euskal Hiztegia (OEh): alegia

**alegia** (L, BN, Sal, S; SP, Urt II 474, Lar, VocBN, Dv, H),  
**alea** (SP), **ale**. Ref.: A (*alea*); Lrq /alégia/.

(...)

- (5) 3. (G-goi-bet). Ref.: JMB At (*alegie*); Zt. Es decir, o sea, a saber. (Colocado tanto encabezando la oración explicativa como al final de ésta). «-Eskopeta ori koipiak erria dagoesan ziyon, **alegiya** beñere etziola koiperik ematen» Zt. (...)
- (6) ■ (Empleado como anafórico, para introducir algo que se va a decir a continuación). v. 1 **zera** (2). \*Orra ba, nik jakin nai nukena da... *alegia*... *zera*... Erri ontan bazkaitara norbait eramán nai danean, nola esaten zaio? Muj PAm 41. -Ta, zer esan dizu? -Esan dit, *alegia*, *abek gaztetxoak*, *txikitxoak dirala oraindik eta urruti aietara iritsi gabeak dirala*. Ib. 44. (...)

Elhuyar:

- (7) Alegia. 3 lok. (Zerbait azaldu ondoren, informazioa zehazteko, azaldutakoa argitu edo osatzeko erabiltzen da) «es decir, esto es»

Ikus daitekeenez, beraz, kategoria gramatikalari dagokionez, EHk eta HBk ez dute inolako zehaztasunik ematen; ezta OEhk ere. Eta EusHk eta Elhuyarrek lokailutzat jotzen dute.

<sup>14</sup> Beste zeinu bat -hitza baliokide bat- erabiliz definitzen da definigaia (Rey-Debove, 1971; Sanmartín, 2010).

<sup>15</sup> Harrigarria bada ere, Azkueren hiztegian ez da ematen *alegia* birformulatuzailearen berri. Gauza bera gertatzen da Pierre Lhanderen hiztegian.

Birformulatzailearen balioei dagokienez, hiztegi guztiak bat datoz birformulatzaile esplikatibo gisa betetzen duen funtzio nagusia jasotzeko. Azpimarratzekoa da, bestalde, bai EusHk bai OEhk jasotzen duten balio berezia: hots, azaldu nahi denari sarrera emateko funtzioa.

## 1.2. *Erran nahi baita*

Nabarmentzekoa da euskal hiztegieta ez zaiola aparteko sarrerarik eskaintzen *erran nahi baita* birformulatzaileari. Hala, hiztegi elebarrak (EHk, HBk eta EusHk) *erran* sarreran jasotzen dute, esapide gisa, eta *hau da* eta *hots* birformulatzaile esplikatiboekiko baliokidetza ezartzen diote. OEhk eta Elhuyarrek, berriz, *erran*-en azpisarrera gisa jasotzen dute (*erran nahi da/baita*) eta *es decir* ordaina esleitzen. Oro har, beraz, baliokidetzaz baliatzen dira birformulatzailea definitzeko, eta ez definizio funtzional batez.

Euskal Hiztegia (EH):

- (8) 1 *erran*, *erraten* (1627) edo *erraiten* (1545). *du ad.* ( 1545) *Sort.* (Laguntzailerik gabe ere jokutzen da: *dio*; *zioen*; *diotso*; *ziotson*; *banerra*, *balerra*; *lerrake*; *berra*, *errazu*, *berrate*). *Esan.* *Erran nahi baita*: *hau da*, *hots*. *Erran gabe doa*: *esan beharrik ez dago*. *Hazi ona behar dela*, *hori erran gabe doa*; *ez erein dudako hazirik*.

Hiztegi Batua (HB):

- (9) *erran* 1, *erraten*. *du ad.*: *erran gabe doa* ('ez dago esan beharrik'); *Jainkoaren erresuma*, *erran nahi da*, *Eliza*; *hilko naiz*, *erran nahi da gauza guztiez gabetua izango naizela*; *orain*, *erran nahi baita*, 1853an.

Euskaltzaindiaren Hiztegia (EusH):

- (10) *erran*, *erran*, *erraten* *du ad.* *Esan.* *Goiz etortzeko erran diot*. *Erran ohi da gauza ona, galdu arte, ez dela ezagutzen.* // *Hazi ona behar dela*, *hori*, *erran gabe doa*; *ez erein dudako hazirik*. *Erran nahi baita*: *hau da*, *hots*.

## Orotariko Euskal Hiztegia (OEH):

- (11) ERRAN NAHI DA (L ap. A; Ht VocGr, Dv), BAITA. Es decir. *Tr.* De uso casi general en la tradición septentrional (pero no en Axular); no lo documentamos al Sur. Con *baita*, *beita*, es hasta finales del s. XIX, bastante menos frecuente, aunque se encuentra ya, alternando con *da*, en Leizarraga y Tartas (*Onsa* 144); en el s. XVIII lo hallamos en Maister y Lopez. Desde mediados del s. XIX su uso va aumentando, extendiéndose a autores labortanos, y ya desde finales de dicho siglo predomina claramente sobre *erran nahi da*; en el s. XX, sólo encontramos ej. de este último en Oxobi (177) y *CatJauf* (115).

## Elhuyar:

- (12) [*erran* aditzaren azpisarrera] *erran nahi da/baita*: es decir

Azkueren hiztegian (1906) ez dago jasoa *erran nahi baita* birformulatuzailea, eta Lhanderenean honako argibide soil hau baino ez dator: «(Hb.) c'est-à-dire».

1.3. *Hau da*

Euskal Hiztegian (EH) definizio funtzionala eta baliokidetzazkoa («ik. *hots*, *alegia*») uztartzen dira *hau da* definitzeko. Euskaltzaindiaren Hiztegiak (EusH), berriz, definizio funtzional hutsa ematen du, baliokidetzara edo sinonimiara jo gabe.

## Euskal Hiztegia (EH):

- (13) [*Hau* sarreran] Aurrean esan dena argiagotzeko erabiltzen den esapidea. Ik. **hots B 2**; **alegia 2**. *Eta leku hari deitu zion «Faniel», hau da, Jainkoaren ikuskera. Otsailaren hogeian, hau da, duela hamabi egun. Estatuaren eskuetan, hau da, Madriloen eskuetan gelditu zitzaigun gehienbat.*

## Hiztegi Batua (HB):

- (14) **hau**: *hau guztia*; *bide honetan guztian*; *hauekin guztiekin*; *hau guztiau*.

**hau da**



## Euskaltzaindiaren Hiztegia (EusH)

- (15) **hau da** Aurrean esan dena argiagotu nahi dela adierazteko erabiltzen den esapidea. *Eta leku hari deitu zion «Fanuel», hau da, Jainkoaren ikuskera. Otsailaren hogeian, hau da, due-la hamabi egun. Irakaskuntza estatuaren eskuetan, hau da, Madrilloen eskuetan gelditu zitzaigun gehienbat.*

Hiztegi elebidunetan ordain hauek esleitzen dizkiote *hau da* esapideari:<sup>16</sup>

Orotariko Euskal Hiztegia (OEH) (ikus *hau da*):<sup>17</sup>

- (16) HAU DA (Ht VocGr 337). Esto es, es decir, a saber. v. ERRAN NAHI DA, **alegia (3)**, **hots**. Tr. Documentado en textos meridionales desde el s. XVII, al Norte sólo lo hallamos en *INav* y algún autor moderno como Mirande.

Elhuyar:

- (17) esto es, es decir; o sea

*Irakaskuntza estatuaren eskuetan, hau da, Madrillo politika-rien eskuetan dago*: la enseñanza está en manos del estado, es decir, en manos de los políticos de Madrid.

1.4. **Hots**

Partikula hau definitzean ere definizio funtzionala («...argiagotzeko hitza»; «... argiagotu nahi dela adierazteko erabiltzen den hitza») eta baliokidetzazkoa («*hau da*-ren baliokidea») uztartzen dituzte EHk eta EusHk. Harelere, hiztegiak ez dira ados jarri kategoriatan gramatikala zehazterakoan: EHk eta EusHk ez dute kategoriari buruzko inolako zehaztasunik ematen; OEHk interjekziozat jotzen du; eta, Elhuyarrek, azkenik, lokailutzat.

<sup>16</sup> Azpimarratzekoa gaztelaniazko ordainak emateko orduan ez datozela guztiz bat OEH eta Elhuyar. Izan ere, Elhuyarrek *o sea* ordaina ere esleitzen dio *hau da* birformulatzailerari.

<sup>17</sup> Azkueren hiztegian (*Diccionario vasco-español-francés*) ez dago jasoa *hau da* birformulatzailerari.

## Euskal Hiztegia (EH):

- (18) 2. Aurrean esan dena argiagotzeko hitza, «hau da»-ren baliokidea. Ez *dugu arras zuzen jokatu* «politikari» dagokionez. *Egia zor du kritikoak, hots, gogoan bata eta ahoan bestea duela ez ibiltzea.*

## Hiztegi Batua (HB):

- (19) **hots 2** 'hau da'

## Euskaltzaindiaren Hiztegia (EusH):

- (20) **hots (...)** 6 Aurrean esan dena argiagotu nahi dela adierazteko erabiltzen den hitza, *hau da*-ren baliokidea. Ik. **alegia**. *Galian, Hispanian, Italian, Britanian, hots, Europaren sartalde guztian. Batasunaren aldekoek –hots, guk– ez dugu arras zuzen jokatu* «politikari» dagokionez. *Egia zor du kritikoak, hots, gogoan bata eta ahoan bestea duela ez ibiltzea.*

Orotariko Euskal Hiztegia (OEH) (ikus hots)<sup>18</sup>

II (Interj.).

❖ 1. (gral.; SP, Lar, Aq (R), Arch Gram 160, Gèze, Dv (L), H). Ref.: A; A Morf 729; Lrq. «Ta, interjección» Lar. «Expresión para que anden los bueyes» Aq 756. «Allons» Arch Gram y Gèze. «¡Ea!, interjección de incitación» A. ❖ Tr. Más frecuente al Norte hasta el s. XX; a partir de aprox. 1930 su uso crece entre los autores guipuzcoanos e incluso se encuentra en algún vizcaíno como Otxolua. (...)

- (21) 3. Es decir, esto es. (El carácter de interjección no es, ni mucho menos, general en todos los ejs.).

## Elhuyar:

- (22) 7 lok. es decir, esto es; o sea  
*Batasunaren aldekoek, hots, guk, ez dugu zuzen jokatu*: los partidarios de la unificación, es decir, nosotros, no hemos actuado correctamente.

<sup>18</sup> Azkuek ez du jasotzen bere hiztegian (1906) birformulatzailer-balioa *hots* hitzaren adieren artean.

## 2. Birformulaztaile esplikatihoak euskal hiztegien arabera: erabat baliokide ote?

Aurreko ataleko definizioetatik ondoriozta liteke hizpide ditugun lau birformulaztaileak (*alegia, erran nahi baita, hau da, hots*) elkarren baliokide eta erdal birformulaztaile batzuen baliokide direla. Eta atal honetan, hain zuzen ere, balizko baliokidetza horiek izango ditugu aztergai. Dena dela, azterketa horri ekin baino lehen, euskal hiztegiek DMak azaltzeko erabili dituzten estrategiak eta definizio-moldeak arakatuko ditugu.

Lan honetan Martín-ek eta Portolés-ek aspaldi (1999) eman zuten harako definizio hura<sup>19</sup> hartuko dugu abiapuntutzat. Definizio hartan DMen bi ezaugarri bereizgarriak geratzen dira azpimarratuta (Martín, 2011): alde batetik, DMek duten jarraibide-, prozedura- edo prozesatze-esanahia<sup>20</sup> azpimarratzen da (hots, hitzunen eta hartzailearen arteko elkarlana eta enuntziatuen interpretazioa gidatu behar duen lankidetz); beste alde batetik, perpausaren esparruan inolako funtzio sintaktikorik ez betetzea da diskurtso-markatzaileen bigarren ezaugarri funtsezkoa. Ez da, beraz, gramatika-kategoria berri bat, ezpada sail funtzional<sup>21</sup>, diskurtsibo edo pragmatiko «berri» bat (Loureda & Acín, 2010; Real Academia Española, Asociación de Academias de la Lengua Española 2010; Martí, 2011).

Beraz, kontuan hartzen badugu DMen jarraibidezko esanahia, begien bistan geratzen da hiztegitzako ohiko definizio kontzeptualek ez dutela

<sup>19</sup> «Los marcadores del discurso son unidades lingüísticas invariables, no ejercen una función lingüística en el marco de la predicación oracional –son, pues, elementos marginales– y poseen un contenido coincidente en el discurso: el de guiar, de acuerdo con sus distintas propiedades morfosintácticas, semánticas y pragmáticas, las inferencias que se realizan en la comunicación.» (Martín & Portolés, 1999: 4057).

<sup>20</sup> «El significado procedimental, también llamado de procesamiento, es la información sobre cómo procesar el significado conceptual, el cual se define a su vez como la información léxica sobre el contenido proposicional de los enunciados» (Loureda & Acín, 2010: 35).

<sup>21</sup> Askotariko gramatika-kategorietatik edo eraikuntza konplexuetatik eratorritakoak dira DMak, eta horregatik diogu sail funtzional edo pragmatiko berri bat osatzen dutela (hots, ez dira inola ere gramatika-kategoria berri bat).

balio markatzaileak definitzeko: *alegia*, hiztegi orokor batean, *alegia*, *hots*, *hau da* eta halako DMak ezin dira definitu, hitz arruntak (*lehoi*, *haur*, *gurdi...*) definitzen diren modu berean; *hots*, gainerako gramatika-hitzen kasuan bezalatsu, definizio kontzeptuala alboratzera eta bestelako prozedura bat erabiltzera behartuta dago hiztegiilea (Martín, 2010). DMen kasuan, kategoria diskurtsibo edo pragmatiko bat izanik, definizio funtzional edo esplikatiibo (Porto, 2002) erabiltzea da irtenbide egokiena.<sup>22</sup> Izan ere, halakoetan erabileran oinarritu behar da ezinbestean definizioa, hitzaren esanahia, funtsean, beraren erabilera baita. Ondorioz, azalpeneko definizio funtzionaletara jotzea da DMak definitzeko estrategiarik egokiena. Zentzu hertsian, halako «definizioek» gehiago dute deskripziotik definitziorik baino; *hots*, azalpen dira, definizio baino areago (Seco, 1978; Llopis, 2006).

Euskal hiztegiatarra etorrira, estrategia eta definizio-molde hauek sumatzen ditugu gure lau birformulatuzaileen definizioetan:

(23)

*Alegia*

(EH) definizio funtzionala + *hau daren* baliokidea

(EusH, *alegia 1 # alegia 2*) definizio funtzionala + *hau daren* baliokidea

(HB) *hots*, *hau da*

(OEH) *es decir*, *o sea*, *a saber* + def. funtzionala [*alegia «2»*]: como anafórico... v. *zera*

(Elhuyar) *es decir*, *esto es* + def. funtzionala

*Erran nahi baita*

(EH) [*erran*-en azpisarrera gisa]: *hau da*, *hots*

(HB) *erran* sarreran: adibideak besterik ez

(EusH) [*erran*-en, «ñabardura» gisa | |]: *hau da*, *hots*

(OEH) *es decir* + tradizioa

(Elhuyar) [*erran*-en azpisarrera gisa, lokuzioa]: *es decir*

<sup>22</sup> Lara-k (2003) *erabilerazkoa* («de uso») deritzo definizio-molde horri, eta Sanmartin-ek dio (2010) zeinuaren metahizkuntzan oinarritutako definizioak direla halakoak (Rey-Debove, 1971; Llopis, 2006).

*Hau da*(EH) [*hau sarreran*] Definizio funtzionala + Ik. *hots, alegia*(HB) [*hau sarreraren azpisarrera, inongo azalpenik gabe*]

(EusH) Definizio funtzionala

(OEH) *esto es, es decir, a saber. Ver erran nahi da, alegia, hots*(Elhuyar) *esto es, es decir; o sea**Hots*(EH) definizio funtzionala + *hau daren* baliokidea(HB) *hau da*(EusH) definizio funtzionala + *hau daren* baliokidea(OEH) «interj.» *es decir, esto es*(Elhuyar) *es decir, esto es; o sea*

Beraz, xehetasunak alde batera utzita, definizio-molde hauek erabili dira euskal hiztegieta, aztergai ditugun DMak definitzeko edo azaltzeko:

(24)

- i. *alegia* [funtzionala + metalinguistikoa (baliokidetzazkoa): *hau da*]
- ii. *erran nahi baita* [metalinguistikoa (baliokidetzazkoa): *hau da, hots*]
- iii. *hau da*
  - a. [EH (13), funtzionala + metalinguistikoa (baliokidetzazkoa): «ik. *hots, alegia*»]
  - b. [EusH (15), funtzionala]
- iv. *hots* [funtzionala + metalinguistikoa (baliokidetzazkoa): *hau da*]

Nire iritziz, oro har, estrategia egokiak hautatu dituzte hiztegiileek diskurtso-markatzaileak definitzeko: *hots*, definizio funtzionala (azalpenezkoa) eta metalinguistikoa (baliokidetzazkoa) uztartu dituzte gehienetan (*alegia, hots, hau da*); eta esapide markatuaren kasuan (*erran nahi baita*)<sup>23</sup>

<sup>23</sup> Eztabaidagarria izan daiteke, alde horretatik, zenbateraino den *erran nahi baita* markatuagoa, *hots* baino.

erabilera zabalagoko esapide baliokideen bitartez (*hau da, hots*) azaldu da definigaia.<sup>24</sup>

Goragoko (23)an eta (24)an ikusi dugunez, aztergai ditugun birformulatzailer «definizioetan» baliokidetzako erlazioa ezartzen da definigiaren eta definitzaileraren artean: «-en baliokidea da» predikatua erabiliz (*alegia, hots sarrerak*); baliokidetzaren bidez (*erran nahi baita: hau da, hots*); edo «ik.» bidalketa-laburduraren bidez (*hau da: Ik. hots, alegia*).

Dena dela, *hau da* birformulatzailerarekiko baliokidetzaren bidez azaltzen dira beste hiru birformulatzailerak, eta, beraz, hortik ondoriozta lezake irakurleak guztiz baliokideak direla laurak.

Bestalde, hiztegi elebidunetan ezartzen diren baliokidetzak batzuk ere zalantzakoak dira, edo, gutxienez, partzialak. Izan ere, informazio-egituraren parametroa aintzat hartzen badugu, *hau da*, esate baterako, ez da *esto es* birformulatzaileraren baliokide petoa, ezta *a saber* birformulatzailerarena ere (infra 2.7.).

Hizkuntza-hiztegi orokor batean, diskurtso-markatzaile bakoitzaren funtzio edo balio nagusiak azaldu ohi zaizkio erabiltzaile espezializatu gabeari, xehetasunetan eta teknizismoetan sartu gabe, eta, alde horretatik uste dut euskal hiztegi-tako definizioak (1-22) egokiak direla, oro har. Dena dela, sakonago aztertuz gero, zalantzarik da goiko lau birformulatzaileraren baliokidetasuna. Izan ere, baliokideak dira laurak balio semantiko-pragmatiko nagusiarri –birformulazio esprikatiboa– bagagozkio, baina desberdinak dira beste parametro batzuk kontuan hartzen baditugu: euskalkia; posizioa eta mugikortasuna; joskera; beregaintasun diskurtsiboa; balio pragmatiko eratorriak... Alegia, ez dirudi lau birformulatzailerak testuinguru guztietan trugarriak direnik. Gauza bera esan daiteke hiztegi elebidunetako baliokidetzak batzuei buruz: informazio-egiturari erreparatu gero, esate baterako, *hau*

<sup>24</sup> Nire ustez, ordea, hobe da beti azalpen funtzional batez hornitzea definizioa; besterik ez bada, erabiltzaile sarrera batetik bestera ibiltzera ez behartzeko. Ondo saihestu da definizio morfosemantikoen arriskua (adibidez: *erran nahi baita* birformulatzaileraren «esan nahi da» hitzen bidez azaltzea, ik. Sanmartín, 2010); eta *hau da* definitzean, definizio funtzionalari esker gaudituz da definizio zirkularra (adibidez: *alegia, erran nahi baita, hots: hau da; hau da: hots, alegia*).

*da* ez da *esto es* esapidearen baliokide erabatekoa. Ikus ditzagun, bada, zertan diren ñabardura horietako batzuk.

## 2.1. Gramatika-kategoria

Hiztegitik eta lexikografo guztiek jotzen dute beharrezkotzat kategoriari buruzko informazioa ematea sarrera guztietan, eta are beharrezkoagozat jotzen da informazio hori gramatika-hitzen kasuan eta, zer esanik ez, DMen kasuan (Llopis, 2006).

Euskal hiztegitan lau birformulatuzaileak, oro har, baliokidetzat jotzen diren arren, ez da islatzen beti baliokidetasun hori gramatika-kategoria zehazteko orduan. Izan ere, oro har birformulatuzaileok lokailuen multzoan sailkatzen badituzte ere, kategoriaren aldetik hutsune nabarmenak daude hiztegitan honako birformulatuzaile hauen kasuan: *alegia* –EH (1), HB (2), OEH (5, 6)–; *erran nahi baita* (ez da zehazten inongo hiztegitan esapidearen kategoria); *hau da* –EH (13), HB (14), EusH (15), OEH (16), Elhuyar (17)–; *hots* –EH (18), HB (19), EusH (20)–. Bestalde, OEHk, zalantza askorekin bada ere,<sup>25</sup> interjekzioztat jotzen du *hots* birformulatuzailea.

Ez da harrigarria euskal hiztegitan horrelako zalantza eta hutsuneak agertzea. Izan ere, diskurtso-markatuzaileena ez da ohiko gramatika-kategoria bat, baizik eta kategoria funtzional edo pragmatiko bat, estatus berezi eta eztabaidatua duena (Martí, 2011; Alberdi, 2014). Gainera, euskaraz ez daude oso garatuta diskurtso-markatuzailei buruzko ikerketak: Euskaltzaindiak (1990) markatuzaile batzuk (lokailuak) baino ez ditu ikertuak, eta, beraz, azterkizun daude markatuzaile asko eta asko.

Beraz, nolabaiteko koherentzia falta nabari da euskal hiztegitan, aztergai ditugun lau birformulatuzailei dagokienez: alde batetik, baliokide direla esaten digute; baina, beste alde batetik, zalantza handiak ageri dituzte haietako batzuen kategoria finkatzeko orduan eta ez dituzte denak kategoria berean sailkatzen.

<sup>25</sup> «El carácter de interjección no es, ni mucho menos, general en todos los ejs.»

## 2.2. Jatorrizko euskalki-banaketa eta egungo joerak

EUDIMA corpuseko datuen arabera, hauek dira birformulatzailer espikatibo nagusien erabilera-maiztasunak:

Birformulatzailera	Agerpen kopurua	%o (100.000ko)
<i>hau da</i> <sup>26</sup>	25595	40,8
<i>alegia</i> <sup>27</sup>	19544	31,2
<i>hots</i> <sup>28</sup>	14662	23,4
<i>erran nahi baita</i> <sup>29</sup>	866	1,3

Euskalkiaren aldetik honelako banaketa ageri zaigu Orotariko Euskal Hiztegiaren (OEH) arabera (Alberdi, 2014): jatorriz eta tradizioz ipar-ekialdekoak dira *erran nahi baita* eta *hots*; hegoaldekoa da *hau da*; eta erdialdeko euskalkietakoa, *alegia*.

Azpimarragarria da, alde horretatik, egungo euskara estandarrean birformulatzailer batzuek eta besteek izan duten «zorte» desberdina. Espero izatekoa zenez –Hegoaldeko euskara, kopuruz eta hedaduraz behintzat, hegemonikoa baita–, egungo estandarrean erabat zabaldu da jatorriz hegoaldekoa den *hau da* birformulatzailera. Joera horren erakusgarri da hiztegiileen joera: *hau da*-rekiko baliokidetzara jotzen dute, hain zuzen ere, gainerako birformulatzailer espikatiboak definitzeko (*alegia*, *erran nahi baita*, *hots*). Alegia, ematen du hiztegiileen *hau da* jotzen dutela birformulatzailer espikatibo prototipikotzat edo markatu gabetzat.

Antzeko harrera ona egin zaio egungo euskara estandarrean jatorriz Iparraldekoa den *hots* birformulatzailerari. Hegoaldeko egungo testuetan, bereziki erregistro zainduan, barra-barra erabiltzen da *hots*, aurrean esan dena

<sup>26</sup> Etenaldi biren artean dauden *hau da* guztiak hartu ditut kontuan.

<sup>27</sup> Datu gordinak, *alegia* izenak barne.

<sup>28</sup> Etenaldi biren artean dauden *hots* guztiak hartu ditut kontuan, izenak bereizi gabe.

<sup>29</sup> *Erran nahi baita* / *Esan nahi baita* aldaerak hartu ditut kontuan; ez, ordea, birformulatzailer zeregina betetzen duten *erran/esan nahi da* aldaeraren adibideak.



argiagotu nahi dela adierazteko; hau da, atal birformulatzaileraren hitz iragarle gisa.

*Alegia* birformulatzailerak ere antzeko zabalkundea edo «arrakasta» izan du egungo euskara estandarrean. Jatorriz erdialdeko euskalkietakoa bada ere, gaur egun ezin da jo euskalki jakin baten edo batzuen hitz bereizgarritzat.

Nolabait esateko, euskara estandarren hiztegi-ondare komuneke baliabide gisa bereganatu ditu hiztunak, maila zainduan behintzat, hiru birformulatzailerak: *hau da*, *hots* eta *alegia*.

Oso bestelakoa izan da, ostera, Iparraldeko tradizioko *erran nahi baita* birformulatzailerak lortu duen hedapena (Alberdi, 2011). Egia da pixka bat hedatu dela egungo euskara estandarrean, baina oraindik ere markatua da euskalkiaren aldetik: beren testuari ipar-ekialdeko mintzairaren kolorea eman nahi dioten idazleek erabiltzen dute batik bat. Nabarmentzekoa da, orobat, *esan nahi baita* aldaerak izan duen oihartzun guztiz apala.

Gaur egun, oso bakan erabiltzen da Hegoaldeko euskara batuan *erran/esan nahi baita* birformulatzailerak: aldaera biak kontuan izanda (*erran/esan nahi baita* eta *erran/esan nahi da*<sup>30</sup>), 1.000 agerpen baino gutxiago ditugu EUDIMA corpusean (ehun milako 1,3). Datu adierazgarriak dira, baliokidetzat jo diren beste birformulatzailerak esplikatibo batzuek duten maiztasun altuarekin alderatuz gero: *alegia* birformulatzailerak, esaterako, 19.000 agerpen inguru<sup>31</sup> ditu guztira gure corpusean; eta *hots* birformulatzailerak, 15.000 agerpen inguru.

Gure datuen arabera, *erran/esan nahi baita* ez da ia batere erabili ZIO corpusean, ez EHUko eskuliburu itzulietan, zuzenbideko testuetan edo

<sup>30</sup> OEHk azpimarratzen duen joerari eusten zaio gaur egungo euskaran ere: *alegia*, aldaera lexikalizatu flexiodun edo aurrizkiduna (*bait-*) da nagusi birformulatzailerak gisa (*erran/esan nahi baita*: 866 agerpen; *erran/esan nahi da*: 219 agerpen).

<sup>31</sup> Egia esan, gutxi gorabeherakoak dira *alegia* eta *hots* birformulatzailerak maiztasunari buruz eman ditugun datuak. Izan ere, gure corpusean ez dago modu automatikoan jakiterik *alegia* guztien artetik zein diren birformulatzailerak eta zein izen; eta orobat gertatzen da *hots* hitzarekin. Gure datuak hurbilpen bat baino ez dira: ondoren eten bat (koma, bi puntu, puntu eta koma...) duten *alegia* eta *hots* guztiak hartu ditugu birformulatzailerat.

Zientzia eta Teknologia corpusean; ezta ETBko dokumentaletan eta Goenkale corpusean ere. Prentsan ere, batez ere *Herria* astekarian agertzen da eta handik kanpo oso bakan. Iparraldean eta ipar-ekialdeko idazleen testuetan, ordea, erruz erabiltzen da: testu mota guztietan; lagunarteko erregistroan zein maila zainduan; hizkuntza idatzian zein ahozkoan.

Beraz, egungo euskara estandarren finkapenari bagagozkio, azpimarratzekoa da ipar-ekialdeko *hots* eta *erran nahi baita* birformulatzailleek izan duten bilakaera desberdina: birformulatzaille gisa erraz eta erruz hedatu da euskara estandarrean *hots* partikula; *erran/esan nahi baita* esapidea, aldiz, ipar-ekialdeko kolorea duten testuetan baino ez da erabiltzen gaurko euskaran.

### 2.3. Posizioa eta mugikortasuna

Posizioari bagagozkio, ez dute mugikortasun berbera lau birformulatzailleok. Eta, edozein kasutan, birformulazio 'partzialak' eta 'erabatekoak' bereiztea (Alberdi & Ezeiza, 2012) komeni da baliokidetzarik ezarri baino lehen. Baina, birformulatzaille bakoitzaren mugikortasuna aztertu aurretik, ikus dezagun zein diren birformulazio-egitura baten osagaiak.

Argiagotu nahi den aurreragoko diskurtso atalari *birformulakizun* esango diogu, eta azalpen berriari *atal birformulatzaille*. Beraz, diskurtsoan lehenago –birformulakizunean– adierazitakoa argitzera edo azaltzera dator atal birformulatzaillea<sup>32</sup>.

- (25) Hain zuzen ere, bere helburuen artean jarri du *botatzen eta errausten* –**alegia, deuseztatzen**– den zabor kopurua murriztea. [EPD, Berria]

Birformulakizuna	botatzen eta errausten
Azalpena: atal birformulatzaillea	– <u>alegia</u> , deuseztatzen–

<sup>32</sup> Adibideetan letra etzanaren bidez bereizi dugu birformulakizuna; letra lodia bidez, atal birformulatzaillea; eta letra lodiz eta azpimarratuta eman dugu birformulatzaillea.

- (26) Jokalari txarrena. Gilbert Arenas. *Izan zen, baina ez da. Alegia, jokalari puska izan zen, baina erosotu egin da, eta kirolarekin zerikusirik ez duten gaiengatik egin da ezagun.* [EPD, Berria]

Birformulakizuna	(Jokalari txarrena. Gilbert Arenas.) Izan zen, baina ez da.
Azalpena: atal birformulatzailerak	<u>Alegia</u> , jokalari puska izan zen, baina erosotu egin da, eta kirolarekin zerikusirik ez duten gaiengatik egin da ezagun.

Azpimarratzekoa da diskurtsoaren harian atal birformulatzailerak geratzen dela indartuta edo nabarmenduta; beraz, hura hartu behar da aintzat eta ez birformulakizuna.

Bestalde, aurreko adibideetan ikus daitekeenez, birformulatzaileraren bidez kateatzen diren diskurtso atalak enuntziatu zatiak (25) nahiz enuntziatu osoak (26) izan daitezke, eta askotariko kategoria lexiko eta sintaktikoak (perpausak, izen-sintagmak, aditz-sintagmak, izenak, aditzak).

### *Alegia*

Birformulazio partzialetan –hots, aurreragoko enuntziatu zati baten (eskuarki, aurreko sintagmaren) iruzkin edo tarteki (gazt. *inciso*) gisa gaineratzen den *alegia* «aposatua»– bi lekutan agertu ohi da. Atal birformulatzaileraren amaieran kokatu ohi da maiz, etenaldi baten ondoren –koma baten ondoren– eta sintagmari edo esaldiari bukaera emanez (27). Baina baita atal birformulatzaileraren hasieran ere (28):

- (27) -Guztiak joango gara Zaldiango jauregira, ados -esan zion Reginari bizpahiru hilabete lehenago-, baina ni Frantziara joango naiz lehendabizi, Anselmorekin ohi bezala, *ibilgailu gurpildun horietako bat* erostera: **voiture bat, alegia**. [EPD]

- (28) Hain zuzen ere, bere helburuen artean jarri du *botatzen eta errausten* –**alegia, deuseztatzen**– den zabor kopurua murriztea. [EPD]

Birformulazio erabatekoetan, aldiz, *alegia* «aposatu gabeak» –enuntziatuen arteko lotura ezartzen duenak–, atal birformulatzailearen hasieran agertu behar du ezinbestean:

- (29) *Azken urteotako kontuetara mugatzearren, esan dezagun, eta horrela aitortu izan dute bertsolariek sarri, bertsolaritzaren inguruko jendea (bertsolariak, entzuleak eta gainerakoak) ia guztiz bat eginda zegoela frankismoaren garaian. Alegia, orain ez bezala, oso talde trinkoa osatzen zuten, ikuspegi, balio eta erreferentzia beretsuei atxikita.* Hori dela eta esan ohi dute bertsolariek «Frankoren garaian errazago -eta erosoago- zela bertsotan jardutea». -Entzuleriaren handi-txikia. Zenbat eta handiago entzuleria, txikiago homogeneitatea. [Bat-bateko bertsolaritza, J. Garzia / A. Egaña / J. Sarasua (Bertsozale Elkarte, 2005) Or.: 146]
- (30) Ikaratu egiten gaitu halako krudelkeriak, gupida ezak: azken finean, hurbila izan behar zitzaizen mutila bi eguneko bahiketaren ondoren. *Baina ikara gaingitu eta hausnarketa-rekin jarraituz gero, egia azaltzen da, alegia, ziurtzat jo dezakegu kasu horietan ere, heriotza zentzumen guztietatik sartzen denean ere, urruntzaile bat dagoela, leungarri bat: ideologia.* Entzun eta irakurri izan diedanez, MLNV delakoaren kideek uste dute Espainia eta Euskadi elkarren etsai direla eta berak, buru-argienak eta kausari inor ez bezala emanak izateagatik, aitzindariak direla, indar espainoilen garaipena geldiarazteko kapaz diren bakarrak. [EPD, Lekuak, Bernardo Atxaga (Pamiela, 2005) Or.: 112]

### *Erran nahi baita*

Gaurko euskaran, betetzen duen funtzioa betetzen duela (hots, birformulazio partzialetan zein erabatekoetan), atal birformulatzailearen hasieran

agertzen da *erran nahi baita* birformulatuzailea (Hegoaldeko idazleren baten adibide bakanen bat kenduta).

- (31) Elkartasun-elkarte frango kezkatuak daude, manifestaldi batzu ere muntatu dituzte, solasa hedatu baita paperik gabeko etorkinak gisa bat edo beste laguntzen dituena zigortua lita-keela eta gainerat ez guti! Gobernuak berak emana hori erakusterat eta iduriz aski garbi! Arrangura handiak agertu dira hor gaindi. Behartsuak laguntzen dituztenek ez diotela jende gaixo horieri galdetzen paperak xuxen dituzten ala ez, beharretan direla ikusiz segurtatzen diotela sokorri zerbait. *Elkartasunez, erran nahi baita jendetasunez*. [EPD-prentsa, Herria]
- (32) *Xinan, berriz ere arrastatu dute Mgr Zhiguo apezpikua, hamabigarren aldikotz, erran nahi baita usaia baduela*, baina behar da jakin badirela hango gobernu komunistak onartu apezpiku «ofizialak» eta besteak, eta hau beste hetarik izanki, hots, libertatea mugatua dutela. [EPD-prentsa, Herria]

### *Hau da*

Gaurko euskara estandarrean, betetzen duen funtzioa betetzen duela (nahiz birformulazio partzialetan nahiz erabatekoetan), atal birformulatuzailearen hasieran agertzen da beti *hau da* birformulatuzailea.

- (33) *Esku artean dugun gaiari dagokionez, hau da, ekonometria-ri dagokionez, hainbat definizio ekar ditzakegu hona*. [EHU, Ekonometria, Alonso Antón, Aurora et al. (EHU, 2010) 1. kapitulua]
- (34) *Batetik, irakaskuntzan eta industrian gai bakoitzari buruz adituak diren pertsonak kontratatu ditugu ariketak idazteko. Hau da, arlo bakoitzean, mundu osoko onenak laguntzen ari zaizkigu kapitulu bakoitzeko oinarrizko kontzeptuak aztertzen modu berriak bilatzeko, eta irakurleak material horri buruz jaso duen informazioa zenbat ulertu duen jakiteko*. [EHU, Konputagailuen arkitektura, Hennessy, John L. et al. (EHU, 2009) Sarrera]

**Hots**

Gaurko euskara estandarrean, betetzen duen funtzioa betetzen duela (hots, birformulazio partzialetan zein erabatekoetan), atal birformulazaileraren hasieran agertzen da ia beti *hots* birformulazailerlea.

- (35) Kategoria kantiarren banaketaren kontua, a prioriko judizio sintetikoaren kontua eta haiek zientziaren eraikina altxatzeko orduan duten transzendentziaren kontua ez daude, ez hurrik eman ere, garbiturik. Nik neuk, nahi dut pentsatu zientzian a prioriko judizio sintetikoak komeni direlako hori *printzipio aurre- edo meta-zientifikoei dagokiela*, **hots, aurretiazkoak diren edo jada izadiaren oinarriko legeetatik harago doazen printzipioei**. [ZIO, Formen matxindada, Jorge Wagensberg / Juan Garzia (EHU, 2007) Or.: 120]
- (36) Errusianaski hotzean egonik hango bereko ortodoxia Erromako Eliza katolikoarekin, hango Alexis II patriarkak aski ongi hartu du Walter Kasper aleman kardinalaren bisita. Gomendatu dio haatik erruso patriarkak ez dezan kardinaleak sobera erakuts katolikotasunaren han gaindi zabaltzeko gosea. *Bainan, bere partetik, Aita Sainduak erakutsi nahi ukan du egun berean Erromako Buruzagiak leku eta parte berezi bat daukala Elizaren Batasun Osoaren buruan. Hots, izan dira hotzagoak Batasun horren barneko harremanak eta ez dira dena den lokarriak hautsiak*. [EPD, Herria]

Iparraldeko tradizioan, berriz, zenbaitetan –birformulazio partzialetan iruzkin aposatua gaineratuz agertzen denean, batik bat– birformulazioaren amaieran ere agertzen da kokaturik, bai lehen (37) eta bai gaur (38-40):

- (37) *Gizon haragia nola-nahi jaten zuen [Hongriako jendeak], gizon odola edaten. Osoki basa zen, hots!* [OEH, Zerb IxtS 103.]
- (38) Txetxenian *Ramzan Kadyrov dute beren lehen ministro berria, aitzineko lehen ministro hilaren semea hots*. 29 urte ditu eta erran behar da Wladimir Putin errusoaren aldekoa dela eta hala izana bere gudariekin, beldur haundiak heda-

tu ere baitzitu denetan Errusiari sumetitzen ez zireneri [EPD, Herria, HERRIAK ETA JENDEAK, SINADURARIK GABE, (2006-03-09, 2. or.)]

- (39) Lekutu behar zuen, baina kurios-pinterdia zenez, sasiaren atzealdean eta lokatzean iltzatu zen, geldo. Mutu. Izutua. Begimentzeko baimenik nehoiz edukiko ez zukeen zerbaiteen lekuko. Bekatuaren minean ihalozka. *Hala baitziren ipurdiak, gerriak, pottottak, pittilinak eta izter-azpiak. Eki arraiotara erakusten ez ziren gorputz zatiak hots.* [EPD, Zeruetako erresuma, Itxaro Borda (Susa, 2005) Or.: 25]
- (40) Alabaina, Albuquerquetik Flagstaffera zihoan bide handitik bazterturiko lege eta jainkorik gabeko cow-boy deabruak edo berrehun kilometro eskasetan zegoen Mexikoko mugatik etorri gosaio pikarraiek ardiak ebasteko raid delakoak antolatzen zituzten. Orduan, bospasei gizon armatu bakarraren kontrako borroka horretan, erasoak irauten zueno, *artzainak bazekien hobe zuela arroila sakon baten gerizan geratzea. Hilarena egitea, hots.* Tiroak, heiagorak eta zaldien lauhazka azantzak jabaldu arte. Ortzaizean altxaturiko errauts zutoina zen atake horien iragarlea. Gero zaldien aztalkaden harramantza. Eta azkenik, astoaren aztoramena. Zakurraren zaunka-intziriak, herioari. Une horietan artzainak ez zezakeen laguntzarik eska: polizia tribal posturik hurbilena Shiprock herrian zegoen, erokeria bat. [EPD, Zeruetako erresuma, Itxaro Borda (Susa, 2005) Or.: 37]

Posizioari dagokionez, beraz, birformulazio *partzialetan* ez dago erabateko baliokidetasunik *alegiaren* eta beste hiru birformulatzailer esplikatioen artean, *alegia* baita egungo euskara estandarrean halako mugikortasuna duen partikula nagusi bakarra. *Hau da* eta *erran nahi baita* birformulatzailerak, aldiz, ezinbestean birformulazioaren hasieran kokatzen dira; eta antzeko joera nabari da *hots* birformulatzaileraren kasuan, atal birformulatzaileraren hasieran kokatzen baita gehienetan egungo estandarrean.<sup>33</sup>

<sup>33</sup> Iparraldeko testuetan, berriz, zenbaitetan bukaeran ere azaltzen da *hots*, bai lehen eta bai orain.

Birformulazio *erabatekoetan*, aldiz, badirudi baliokidetasuna dagoela lau birformulatzailerik artean mugikortasunik ezari dagokionez: laurak kokatzen dira birformulazioaren hasieran.

#### 2.4. Joskera

Joskerari dagokionez, *erran nahi baita* esapidearen berezitasun sintaktiko bat baino ez dut azpimarratuko. Izan ere, nahiz *erran nahi baita* nahikoa lexicalkizatuta dagoen, enuntziatuak lotzen dituenean (birformulazio *erabatekoetan*, *alegia*), ia beti eskatzen du *-(e)la* menderagailua atal birformulatzailerik: *alegia*, perpaus osagarria gobernatzen du ia beti. Hots, *alegia*, *hots* eta *hau da* birformulatzailerik ez bezala, funtzio sintaktiko argia betetzen du, atal birformulatzailerik predikatu nagusia baita.

- (41) *Apirilaren lehenaren antzekoa da Hegoaldeko inuxenten eguna, **erran nahi baita** edozein gezur saka daitekeela abenduaren 28-an*, hala nola egiten den Iparraldean apirilaren 1-ean. [EPD-prentsa, Herria]
- (42) Den gutieneko zalantzarik ez balitz ere bestalde arazo honetan, ez litzateke gauza berria teologiako eztabaidak antolatzea dudazko ez diren puntu zenbaiti buruz: Hala nola eztabaidak izaten diren Jainko Gizon Eginari eta fedezko beste artikulu batzuei buruz. Teologiako eztabaidak alabaina ez dira beti deliberatiiboak. *Askotan demostratiiboak dira; **erran nahi baita**, egiaren erakusteko antolatzen direla eta ez egiaren frogatzeko*. [PKC, Indio aurkitu berriak, Francisco de Vitoria / Piarres Xarriton (1993) Or.: 55]

Egia da beste birformulatzailerik esplikatiiboek ere (*alegia*, *hau da*, *hots*) zenbaitetan perpaus osagarria duen enuntziatu bat sartzen dutela, baina ez ezinbestean eta ez edozein testuingurutan. Ikus ditzagun kasu tipikoak.

Perpaus osagarri bat (*-(e)la*) birformulatzailerik denean, badirudi ezinbestean erabili behar dela menderagailu berbera (*-(e)la*) birformulazioan. Halakoean ez dago jakiterik birformulatzailerik eraginarengatik gertatzen den



menderakuntza ala aurreko perpausa (birformulakizuna) ere menderatua delako.

- (43) Odolak hemoglobinarekin konbinaturik darama oxigenoa eta oxigeno hori hemoglobinatik askatzea ez da erraza; odoleko oxigeno-tentsioa asko jaitsi behar da horretarako. Baina oxigeno-tentsioa asko jaisten bada, ez da izango umekiaren beharrak asetzeko nahikoa. *Kontuan hartu behar da, gainera, oxigenoa umekiaren odolera heltzeko, plazentaren epitelioan zehar barreiatu behar dela, **hau da, oxigenoak nolabaiteko «hesia» zeharkatu behar duela.*** [ZIO, Anima-lien aferak, J.I. Pérez Iglesias / M.B. Urrutia (EHU, 2011) Or.: 172]
- (44) Hain zuzen bazuten europearrek Express deitu ikergailu bat Marterat igorria eta huna handik berri interesgarriak etorri berri direla guretako ainitz balio dutenak jakintza mailean. Darmstad agentziak du horren berri eman: lehen aldikotz jakin da hari esker, ura badela hormatua edo karroindua Marteren gainean, alde batean segurik. Haren azalean bide da ur hori, nahiz oraino ez dakiten zenbat, ez-eta ere sasoinka den hormatua, baititu Marzok ere bere gisako uda-neguak. *Bestalde, hango mendien berri ere badaki orai gizonak, gero-ta gehiago, **hots, hemengoak baino hiruetan goragoak direla bana-beste: 27 kilometra gora haundiena, Everestek hiruetan gutiago dituelarik*** [EPD, HERRIAK ETA GIZONAK, SINADURARIK GABE, «HERRIAK ETA GIZONAK» (2004-01-29, 2. or.)]

Beste batzuetan, perpaus konpletibo baten bidez zehazten edo birformulatzen da birformulakizuneko sintagma bat (*Zigor Kodearen 410. artikulua dioena*): halakoetan, birformulakizuneko predikatuaren gainean (*gogorarazi du*) eraikitzen da perpaus osagarria (*zigortu behar direla*).

- (45) Ildo horretan, *Zigor Kodearen 410. artikulua dioena* gogorazi du Fiskaltzak; **alegia, ebazpen judizialak betetzeari uko egiten diotenak zigortu behar direla.** [EPD-prentsa, Berria]

Zenbaitetan, *-(e)la* menderagailua duen perpaus osagarri baten bidez birformulatzen da zehaztapenen beharra duen birformulakizuneko izen bat (*bertsioa*):

- (46) «Kartzelan egon beharko luke, orduan. Munduko lekurik arriskutsuena da paraje hau udan», esan zuen poliziak. Juanek *bere bertsioa* eman nahi izan zion, **alegia Baffinek, uharteko lehen esploratzailea zen partez, segur aski intrusioztat jo zuela gure etorrera, eta gure ametsen barruan sartu eta heriotzarantz gidatzen ahalegindu zela**. Zorionez, Juanek ingelesez gaizki egiten zuenez, poliziek ez zioten uler-tu. [Lekuak, Bernardo Atxaga (Pamiela, 2005) Or.: 173]

Beste testuinguru batzuetan badirudi ageriko arrazoi sintaktikorik gabe azaltzen dela *-(e)la* menderagailua atal birformulazailerikoa: ondorengo testuen antzekoetan, esaterako, pentsa liteke isilduta dagoela perpaus osagarria gobernatzen duen pentsamenduzko aditza; nolabaiteko ondorio subjektiboa adierazten du halakoetan.

- (47) *Naroa Agirrek pista estaliko pertika jauziko bere marka ondu zuen, atzo, Anoetako Belodromoan. Espainiako marka ondu zuela, alegia*. [EPD, Berria]
- (48) Begiekin jotzea ahotan hartu dugularik, eta gizonen gauzak astintzen ari garen honetan, gogora datorkit begiekin (eta, beraz, buruarekin) jotze horren kontrako osagarritzat har daitekeen bestelako operazio bat, eta hura da «pitoarekin pentsatzea» esaten dena, zein baita gure sexuari besteak maiz aski egotzi ohi dion bekatu edo akatsetarik bat. Nik berriz, gure gixonkasta ohoratzen eta bere goien graduraino goititzen duen ezaugarritzat jotzen dut pitoarekin pentsatze hori, eta *akatsik nonbait egotekotan, motz gelditzean legoke; hau da, ez garela geu ere pentsatzeko era jator horri behar adinbat atxikiak*. [EPD, Gaur ere ez du hiltzeko eguraldirik egingo, Iñaki Segurola (Alberdania, 2005) Or.: 91]
- (49) Gauza da ohatzerat eramane behar izaten genuela hiruzpalauren artean, jostetak edota liskarrak alde baterat utziz, gu

beti geurean ibiliz ere jainko eta jainkosen istorioak txunditurik uzten baikintuen, hein batean bedere, ez baikenion sobera konprenitzen. Pentsalari sakon batentzat geneukan guztiok osaba idazle-filosofoa. *Istoriolari izari berezia hartzen genion, halako igarkizun kutsua; **hots**, **historia zela***. Hain zen jakintsu... eta umoretsu. Guztiok erran dut, baina gure amak otto Laurenz funtsgabe hordi bat zela zioen beti, ganorabako bat. Eta amak ezagutzen zuen bere neba, naski. [Denboraren mugan, Jose Angel Irigaray (Pamiela, 2005) Or.: 14]

Beraz, funtzio pragmatiko nagusiari dagokionez *alegia*, *hots* eta *hau da birformulatzailerik kidekoa bada ere*, sintaxiaren aldetik oso bestelako jokamoldea du *erran nahi baitak*. Izan ere, *erran nahi baita* esapidearen kasuan gramatikalizazioa ez da erabat burutu: bera da atal birformulatzailerik predikatu nagusia; perpaus osagarria gobernatzen duten predikatu horietakoa, hain zuzen.

Bestela, antzeko ezaugarri sintaktikoak partekatzen dituzte, oro har, lau birformulatzailerik esplikatiiboek: birformulazio partzialetan zein erabatekoetan erabiltzen dira laurak; birformulazio partzialetan, gehienetan halako paralelismo funtzional bat –'baliokidetasun funtzionala' (ikus Suñer, 1999)– egon ohi da birformulakizunaren eta birformulazioaren artean, ezinbestekoa ez bada ere (Alberdi, 2014); eta, orobat, luzera eta maila guztietako kategoria lexikoak eta sintagmak txertatzen dituzte laurek birformulazio partzialetan.

## 2.5. Erabilera dialogikoa (heterobirformulazioa). Beregaintasun diskurtsiboa

Hiztunak berak jar dezake abian birformulazio-prozesua (Garcés, 2008: 69; Garcés, 2009: 17-18): 'autobirformulazio' deritzo prozesu horri (50). Edo beste hiztun edo solaskide batek eraginda gerta daiteke birformulazioa: B solaskideak A solaskidearen adierazpena birformulatzen du, eta orduan 'heterobirformulazioaz' mintzatu ohi da (51).

- (50) Duela bi urte, 2007ko otsailean, Araba, Bizkaia eta Gipuzkoa «transgenikorik gabeko eremu» izendatu zituen Jaur-laritzak; *alegia*, pertsona edo aberentzako elikagai izan zitezkeen landaketa transgenikoen aurka agertu zen. [EPD, Berria]
- (51) Laukizuzena, gero; bi informazio behar dira hura zehazteko. Gero, erronboa, paralelogramoa, trapezioa. Eta, hara, ia-ia ahaztu zaizkit, haiek izanik ugarienak inondik ere: nolanhikoak! Ezer nabarmenik ez dutenak. -*Alegia*—sartu zen tartean Jonathan—, matematikan lanerako sekula erabiltzen ez direnak. [ZIO, Loroaren teorema, Denis Guedj / Jon Muñoz (EHU, 2005) Or.: 156]

Oker ez banago, lau birformulatzaile esplikatiibo nagusiak (*alegia, erran nahi baita, hots, hau da*) balia daitezke heterobirformulazio bat gauzatzeko: aski da elkarrizketaren harian beste solaskide batek hitza hartzea eta aurreko esatariaren enuntziatua birformulatzea. Beraz, erabilera monologikoari edo dialogikoari bagagozkio, ez dut uste funtsezko desberdintasunik dagoenik aztergai ditugun lau birformulatzaileen artean.

Ez dirudi, ordea, lau birformulatzaileek beregaintasun diskurtsiboa dutenik. Haietako bi (*alegia, erran nahi baita*), elkarrizketa batean ager daitezke txanda bat eta enuntziatu bat osatuz (beregaintasun diskurtsiboa). Elkarrizketa baten harian galderazko enuntziatu beregain bat osatzeko gauza dira *alegia* eta *erran nahi baita*: solaskideari azalpen zehatzago bat edo birformulazio argigarri bat eskatzeko erabiltzen dira, esaterako, testu hauetan:

- (52) -Nik, berriz —sartu zen tartean Jonathan, goxo-goxo—, ez dut uste zuk esan bezala gertatu denik kontua. Zuk ez duzu ezertxoren erantzukizunik. Burua mugitu zuen Ruche jaunak, tristuraz. -Dena antolatuta zeukan zure adiskideak —jarraitu zuen Jonathanek—. Bidali dizun gutuna haren testamentua da. Bere heriotza aurreikusi, eta gauzatu egin du noski. -**Alegia?** [ZIO, Loroaren teorema, Denis Guedj / Jon Muñoz (EHU, 2005) Or.: 104]

- (53) -oihukatu zuen Léak, sutan. - Horixe bera uste nuen nik ere. Gero, gogoeta egin, eta hortxe aurkitu dut irtenbidea... beste liburu batean. Neurketa une jakin batean eginez mol-datu behar izango zuen Talesek: eguzki-izpiak onarriaren aldearekiko zehazki zut zirenean! **-Alegia? -galdetu zuen Léak.** -Ai ene! Utzidazu gogoratzen. Oinarriaren aldearekiko zut; horrek esan nahi du alderdi ezkutua alde baten erdiaren berdina dela. Hala, piramidearen garaiera itzalaren luzera gehi alde baten erdia da -bukatu zuen lasterka batean Ruche jaunak. - Tira ba, ez dut tutik ere ulertu -esan zuen Léak. [ZIO, Loroaren teorema, Denis Guedj / Jon Muñoz (EHU, 2005) Or.: 50]
- (54) -Ulertzen duzu... nire langileek nahi izan dutelarik greba egin gehiago pagatuak izateko gisan, behar izan ditut kanporatu... Ondorioz, lantegiaren erdia bota eta, bakea ukan dut! -Zenbat pagatzen dituzu zure langileak? -eskatu zion bilo luzeak zituen mutikoak. -*Hemengo legeak aipatzen duen minimoa baino gehiago!* -**Erran nahi baita?** -150 pesos egunean. 3 euro inguru. Minimoa baino % 25 gehiago! Gehiago ezin dut! Zinez! Lan sariak igotzen banitu lantegia itxi beharko genuke! Mikelek ez zion ezer erran baina harritzen zen ikustea zer segurtasunarekin gazte horrek zituen langile familia osoak miseriara bota! [EPD, Skyroom, Ramuntxo Etxeberri (Elkar, 2004) Or.: 212]

Ez dut horrelako adibiderik –hots, birformulatzaileraren beregaintasun diskurtsiboa erakusten duen adibiderik– aurkitu gaur egungo euskara estandarrean (EUDIMA corpusean, behintzat) *hau da eta hots* birformulatzaileran kasuan.

## 2.6. Balio pragmatikoak

Oro har, aztergai ditugun lau birformulatzailerak balio pragmatiko oinarriko berbera partekatzen dute: birformulazio esplikatibo bat bideratzeko erabiltzen dira; hots, aurreragoko diskurtso atal batean adierazitakoa azaltzera, argitzera, osatzera edo zehaztera datorren diskurtso atal bati bide egi-

teko erabiltzen dira<sup>34</sup>. Hona adibide batzuk, balio birformulatzailer esplikatiibo horren adierazgarri:

- (55) Hain zuzen ere, bere helburuen artean jarri du *botatzen eta errausten* –**alegia, deuseztatzen**– den zabor kopurua murriztea. [EPD, Berria]
- (56) *Apirilaren lehenaren antzekoa da Hegoaldeko inuxenten eguna, **erran nahi baita** edozein gezur saka daitekeela abenduaren 28-an*, hala nola egiten den Iparraldean apirilaren 1-ean. [EPD-prentsa, Herria]
- (57) «Katilinarenak» nobelak misteriozko istorioa du kontagai, baina, *intrigazko nobela honetan askatu behar den misterioa ez da ohikoa. **Hau da, nobela honetan misterioa edo intriga ez dago gertakari batzuk argitzearekin loturik.*** [EPD-prentsa, Berria]
- (58) «Badakigu ez dugula ezer aldatuko, ezer irauliko, baina literaturaz hitz egiteko gogoia genuen eta horren inguruan elkartu gara aldizkaria egiteko», azaldu du Ibon Egañak, sustatzaileetako batek. Aldizkariak ez du maiztasun jakinik izango, eta *blog baten ereduari jarraitzen dio. **Hots, argitaratu ahala mezuak ikusgai dituen sareko gune bat da.*** [EPD-prentsa, Berria]

Ildo beretik, oinarrizko balio pragmatiko nagusi horren gauzatzetat har ditzakegun balio diskurtsibo «eratorri» hauek ere erkide dira lau birformulatzailerentzat (ikus Garcés, 2008):

a. Identifikazio- eta zehaztapen-funtzioa: birformulakizunari erreferentzia jakin bat esleitzea:

<sup>34</sup> Alberdi (2014) lanean esaterako, honela azaldu dut *alegia*: «Birformulazio esplikatiibo bat bideratzeko erabiltzen da *alegia*: hots, aurreragoko diskurtso atal batean adierazitakoa azaltzera, argitzera, osatzera edo zehaztera datorren diskurtso atal bati bide egiteko. Hitz horretaz baliatzen da esataria esan berri duena modu argiagoko batez birformulatzeko: haren bidez esatariak ohartarazten edo iragartzen dio hartzaileari lehenago adierazi duenari buruzko azalpen bat datorrela *alegia* hitzak txertatzen duen diskurtso atalean.»

- (59) *Sortu zenetik -XIX. mende-hasieratik, alegia*, biologiak ez dio utzi egituretan barrentzeari eta funtzioetan sakontzeari. [Sagua, eulia, eta gizakia, François Jacob / Juan Garzia (EHU, 2004) Or.: 11]
- (60) Gaurko gomita, beraz, Daniel Landart, Donoztirin sortua eta Mugerren bizi. Gau on, Daniel. -Bai zuri ere. Gau on entzuleak. -Bizkorrian? -Biziki ontsa, milesker. -Ez zira denbora txarraren beldur izan hunaraino jiteko? -Batere. Biziki aise egin dut bidaia... *Etzetik hunaraino, erran nahi baita Mugerretik Donibane Garazira*. [EPD, Ez da musik, Menane Oxandabaratx (Elkar, 2006) Or.: 7]
- (61) *Baina bideratutako dirua Europako batez bestekora hurbiltzen joateko* eskatu zuten; hau da, Barne Produktu Gordina-ren %3 ingurura hurbiltzeko. [EPD-prentsa, Berria]
- (62) Hortaz, azken hori ere jaioa izanez, horrek horrela infinituraino segituko du: baina hastapenean infinituaren existentzia, era honetan ere, ezinezkoa dela ezarria dute, haien XI. baiespenean erakutsi dugunez. Era beretik, *aitarik gabeko lehenbiziko banakoarenganaino* hel bazintez ere, hots, Adamenganaino, hortik oraino galdera letorke: «Nondik jaio zen Adam hori?». Eta zerorrek, adibidez, erantzun bazenez: «hautsetik» nahitaez honako galdera egin lezake: «baina nondik sortu da hauts hori? [Alderraien gidaria, Mose ben Maimon / Xabier Kintana (Pentsamenduaren klasi-koak, 2006) Or.: 221]

b. Birformulakizunaren esanahia edo zentzua argitzea:

- (63) Hain zuzen ere, bere helburuen artean jarri du *botatzen eta errausten -alegia, deuseztatzen*- den zabor kopurua murriztea. [EPD]
- (64) Monclarrek kontuak eginen zituen: arpilatzaileak 4.500 izan beharrean 5.000 izateak ez zuen hiriko biztanleen zorrigaitza makurragotuko. Herrixka, berriz, zutik zegoen eta bizirik hango biztanleak. -Zoazte Jaunaren bakean. Gu ailegatu orduko aspaldi itzalia zen *egiazko borroka, erran*

**nahi baita, gizonen gizon, buruz buru eta berdinez berdin egiten dena.** Noraino izan zen hura odoltsua ez dakit. Zubi gotortuan, ate inguruan eta karrketan ez zen soldadu hilik falta. Etsaietarik franko, eta guretarik gehiago. [EPD, Mailuaren odola, Aingeru Epaltza (Elkar, 2006) Or.: 274]

- (65) Eta Arco, batez ere, *azoka dela kontuan hartuta*, **hau da, salerosketa gunea**, ondorio ekonomikoak izango direla ez du inork dudan jartzen.
- (66) Arrazoimenak, aldiz, egitate bera, nahimenaren gertakari gisa pentsatuko du. (*Zuzenean nahimena bera ez dugu inon hautematen, baizik haren ondorioak; hots, efektu bat da, zuzenean hauteman eta interpretatzen duguna kausa haren obratzat*, hura zergatiko libre legez ulertuz edo ezinbestekotasun naturalaren menpegabekotzat). Kausalitate naturala, batetik, eta kausalitate librea, bestetik, munduan eragintza pentsatzeko bi modu da. [EPD, Volksgeist - Herri gogoia. Ilustraziotik nazismora, Joxe Azurmendi (Elkar, 2007.) Or.: 21]

c. Birformulakizunaren esanahia zabaltzea: definizioa

